KIROLA: HAWAIIKO IRONMAN PROBARAKO, KAMISETAK SALGAI /10

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




# Goienkaria



EGUBAKOITZA • 2005eko uztailaren 15a • V. urtea • 208. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

**DEBAGOIENA**
**Abendurako, bukatuta Epele-Kaskonategi errepideko lanak /6**

**PABLO MONGELOS** / FAGOR
*"Mundua lehen baino globalagoa da, eta kooperatibismoa aldatu egin beharko genuke"* **/9**

**ARRASATE**
**Amaitu dituzte anbulatorioa berritzeko lanak/5**

**ASTEKO GAIA:** ABANTAILA FISKALAK JASO DAITEZKE

## Baserriak birgaitzeko dirulaguntzak

Baserria birgaitzerakoan, oso debagoiendar gutxik eskatzen dituzte dirulaguntzak, baina Suradesa birgaitzerako elkarteak dioenez, merezi du tramiteak egitea. Izan ere, proiektua modu egokian aurkeztuta, %15eko desgrabazio fiskala lor daiteke. Suradesak horren gaineko aholkularitza eskaintzen du. **/3**



UBANE MADERA

## Saharako umeei ongietorri ekintzak

Debagoienean 18 ume sahararrek pasatuko dute aurten uda, Oporrak Bakean programaren bidez. Joan den astean etorri ziren eta Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Antzuolan egongo dira. Hala, udal horiek ongietorri ekitaldia egitekoak ziren atzo, eguena, Arrasateko udaletxean, opari banaketa eta merienda eskainita. Saharearekin elkartasun ekitaldiak ez dira hor bukatzen: etzi, domeka, Sahara Orain jaialdiak aisialdia eta aldarrikapena bateratuko ditu. Aisialdiaren tartean, saharar umeek eta familiek ondo pasatzeko moduko ekintza asko izango dituzte aukeran. **/13-15**

Goienka2a

## Migel Lazpiur bergararra, enpresaburuen buru

Migel Lazpiur Lamariano enpresaburu bergararra izango da aurrerantzean Confebask Euskadiko patronalaren presidentea. Roman Knörr ordezkatuko du karguan, hark postuan sei urte bete ostean. Adegik orain dela bi hilabete izendatu zuen Lazpiur presidentetzarako hautagai. Presidente berriak azpimarratu duenez, bakea lortzea izango da bere helburu nagusi; baita sindikatuekin elkarrizketa berreskuratzea ere. **/5**



Lazpiur eta Knörr. ARGAZKI PRESS




Gure Ametsan afaldu nahi? Zoaz azken orrialdera.




Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
SEAT

AZKEN ESKAINTZAK!
Uztaila eta abuztua




Arrasate Bidaiak
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA
ARRASATE BIDAIAK
Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa.: 943 79 74 45
E-posta.: d4051@marsans.es


DEBAGOIENA/4-6 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22


Pozaren zipristinak
Plis, plas! Jolasak, barreak, esperientzia berriak eta aurkikuntzak. Familiakoekin eta lagun artean igarotzeko sasoia. Jai giroan, eguzkipean. Eta irailean indarberriturik itzuliko gara. Ondo pasa.
www.arizmendi.ikastola.net
Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

# Baserria birgaitzeko laguntzak badaude, egoki tramitatuz gero

## Suradesa elkarteak aholkularitza zerbitzua eskaintzen die jabeei

LEIRE KORTABARRIA

Debagoiendar askok dakite Suradesa elkarteak etxebizitzak birgaitzen laguntzeko ematen duen aholkularitza eta tramitazio zerbitzua. Gutxiagok, ordea, dakite elkarte horrek zerbitzu hori bera ematen duela baserrietarako ere. Abantaila handienak zerga aldekoak dira: proiektua ondo tramitatuta, baserri horren jabe den zergadun bakoitzak %15 inguruko desgrabazioa lor dezake lanen kostuaren gainean.

Ez da baldintza berezirik behar, bakarra baizik: lanen proiektua idatzi aurretik, beste ezer egin aurretik, joan behar da Suradesa elkartera. Hori oso garrantzitsua da laguntza ofizialak jasotzeko edozein aukera aprobetxatu gura bada: izan ere, birgaitzerako laguntzak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren dekretuak oso baldintza zorrotzak ipintzen ditu eta, horietako bakarra apurtu ezean, laguntzak ukatu egingo zaizkio etxearen jabeari. Hala, ez dituzte onartuko erortzekotan dauden baserriak; hedadura handitzea; baserria etxebizitza baten baino gehiagotan banatzeko lanak –bai, ordea, baserria lehendik banatuta bazegoen–; edo baserria guztiz hustea eskatzen dituzten lanak. Proiektuaren erredakzio txar batek bertan behera utz ditzake etxe-jabeak laguntzak jasotzeko zituen aukerak, eta horretarako laguntza ematen du, hain zuzen, Suradesak.



LEIRE KORTABARRIA

Urrumangoa baserria, Oñatiko Uribarri auzoan, Suradesaren aholkularitzaren bitartez birgaitu zuten.

### ABANTAILA HANDIAK

Dirulaguntzak bi motatakoak dira. Etxebizitza Sailak dirua mailega dezake, baina hori oso kantitate txikia da baserri batendako: kasurik onenean ere, Suradesak dioenez, gehienez ere, 7.200 euro inguru ematen dizkiete. Laguntza garrantzitsuena da zerga-desgrabazioa: baserria goitik behera birgaitzeko lanengatik, baldin eta ohiko etxebizitza bada, lan guztien kostuen %15a desgraba dezake zergadun bakoitzak: 190.000 euro inguru. Abantaila handiak egon arren, ordea, Suradesako gerenteak, Luis Laskurainek, dio "oso baserri-jabe gutxi" joaten direla aholku bila, eta joaten diren gehienak proiektua eginda azaltzen direla, eta orduan ezer gutxi egin daiteke.

### BIRGAITZE KASU BAT

Bere baserriaren birgaitze proiektua Suradesaren bidez oso debagoiendar gutxik egin dute; horietako bat da Mikel Alberdi, Oñatiko Uribarri auzoko Urrumangoa baserria birgaitu aurretik. Orain, abantaila fiskalak jaso ditzakete, Suradesaren aholkularitza hasiera-hasieratik jasota.

Alberditarren kasuan, gaizki zegoen eraikina, eta erabaki zuten zorua, teilatua eta behe solairuko zati bat berritzea, "hori oinarrizkoa izanda, gero konponketak egin gura bagenituen hortik moldatuko ginelako", dio Alberdik. Lan horiek Suradesari aurkeztuta, agentziak ontzat eman zuen aurrekontua, betiere ohiko etxebizitza izanda. Baina lan konplikatuak izan dira, planteatutako berritasunak egin ahala, beste birgaitze premia batzuk agertzen joan zirelako. Aldaketa horiek justifikatu behar izan zituzten, behar ziren dokumentu eta argazkiekin, eta Suradesak egokitzat jo eta bideratu zituen. Orain, birgaitzea bukatu denez, ohiko etxebizitzan inbertitzeak dituen onura fiskalez baliatzeko aukera dute Alberditarrek, hau da, inbertitutakoaren %15, eta muga, orain, 200.000 eurotan dago desgrabatzerakoan.

Horra iristea ez da gauza erraza izan: tramite asko bete behar dira, luze itxaron… Suradesak dioenez, gestio horiek hain korapilatsuak izateak beldurtzen ditu onuradun izan zitezkeen etxe-jabe asko, baina gogorarazten dute laguntzak egon, badaudela.

---

**LUIS LASKURAIN** / SURADESA ELKARTEKO GERENTEA

## *"Baserrien jabeek etorri behar dute proiektua egin aurretik"*

**Luis Laskurain da Suradesako, Debagoieneko Birgaitzerako Hiri Elkarteko gerentea. Mankomunitatearen egoitzan dago Suradesaren zerbitzua.**



**Badago baserrirako dirulaguntza araurik?**

Ez, arau espezifikorik ez dago. Dagoen bakarra Eusko Jaurlaritzaren dekretu bat da, 1984koa, eta hori ere, babes ofizialeko etxebizitzen mesederako da batik bat. Hala, dauden dirulaguntzak baxuegiak dira etxebizitza normalendako, zer esanik ez baserriendako.

**Horrek baserri-jabeak desanimatuko ditu, ezta?**

Jende asko kexatu egiten da, baserrirako dirulaguntzarik ez dagoela esanez. Guk esaten diegu laguntza batzuk egon badaudela, eta ahalik eta gehienak lortzen saiatu behar dugula. Hori da Suradesaren filosofia.

**Zein oztopo ipintzen ditu, bada, dagoen arauak?**

Babes ofizialeko etxeetarako pentsatuta dagoenez, baserri baterako pentsa ezinekoak diren baldintzak ipintzen ditu: hala, dirulaguntzak 90 m2-tik beherako azalerendako dira, guztiz eskasak baserri batendako; etxebizitza hustea debekatu egiten du, eta hori arrazoizkoa baldin bada etxebizitza bloke batendako, baserri baten birgaitzean zentzuzkoena da hustea.

**Hala ere, jasotzen dituzue kontsultak?**

Azken urteotan, 20-25 bat kontsulta jaso ditugu. Horietatik erdiak bakarrik bideratu dira birgaitzera. 4-5 urtean, 10-15 lan bitartean egin dira. Gutxi dira, gehienetan proiektua eginda etortzen zaizkigulako; ezer egin aurretik etorri behar dute.

---

PLANTEAMENDU TXARRA

### Proiektua behar bezala idaztea garrantzitsua da

**Gaizki planteatutako lanen adibideak ematen ditu Suradesak: adibidez, proiektuan esaten denean etorkizunean baserria bitan banatzeko asmoa dagoela, edo sabaia 50 zentimetrotik gora igo behar dela esaten denean, hori azalera handitzearen kasu bezala hartzen da-eta.**

NEKAZARI LAGUNTZAK

### Baserri esplotazioa dutenendako abantailak

**Baserrien jabeek hirugarren dirulaguntza mota bat jaso dezakete, nahiz eta dagoeneko gutxi batzuendako izan: baserria nekazari esplotazioa ere denean, etxebizitzaz gain. Kasu horretan, Nekazaritza Sailak diruz lagunduko ditu lanak, Etxebizitza Sailaz gain.**

OSO KONTSULTA GUTXI

### Denera, 1.000tik gora; baserrietarako, 25

**Suradesa birgaitze elkartea 1986an sortu zen, eta betidanik izan du kontuan nekazari ingurua, baina arlo horretako kontsultak gutxiengoa dira: soilik 25 bat azken urteotan, guztira 1.300 bat kontsultatik. Hiri-inguruneko birgaitzeen gainean dira eskaera gehienak.**

AURREZPENA

### Lau milioi eurotik gora aurreztu zuen ibarrak

**Azken bost urteotan, 4.178.590 euro aurreztu dute debagoiendarrek ibarrean egindako lanei esker. 2004an, 1.200 etxebizitzak jaso zituzten onurak. Suradesaren lan arlo handiena da hirigune historikoak eta etxebizitzak hobetzea eta birgaitzea.**

# Hiltegiak publiko izaten jarraituko du, aurkako iritziak asko izan arren

*Erabakiaren aurka daude Hiltegia Bizirik plataformakoak eta oposizioko alderdiak*

GOIENKARIA

**Mankomunitateko batzordeak Zubillagako hiltegiaren etorkizunaren gaineko erabakiaren berri eman du. Erabaki hori dela eta, hainbat iritzi plazaratu dituzte batzordekoek, oposizioko alderdiek zein Hiltegia Bizirik plataformako kideek.**

Mankomunitateak erabaki du Zubillagako hiltegia publiko izaten jarraitzea eta Mankomunitateak berak izatea ardura guztia, nahiz eta onartu erabakia sektorearentzat etorkizunerako alternatiba ez dela.

Horrela, Hiltegia Bizirik plataformak kudeaketa mistoa egiteko aurkeztu zuen proposamena baztertu egin du Mankomunitateak. Plataformak harriduraz hartu du erabakia, orain arte esandako guztiaren aurka doalako.

Mankomunitatea eta Hiltegia Bizirik plataforma ez dira ados jarri elkarrekin egindako negoziazioetan. Bi aldeak bat zetozen Siadecok egindako bideragarritasun planetik kudeaketa mistoaren alde egiteko orduan; ez, ordea, sortuko litzatekeen kapital mistoko enpresaren ezaugarrietan. Mankomunitateak proposatu zuen enpresaren kapital soziala honela banatzea: %10 kudeaketa enpresak jartzea, %18 abeltzainek, %36 harakinek eta beste horrenbeste Debagoieneko udalek. Plataformak, ordea, ez zuen onartu Mankomunitatearen ordez udalak izatea enpresako partaide.

Mankomunitatearen iritziz ulertezina da hori, berdina baita Debagoieneko udalak biltzen dituen erakundea edo udalak eurak egotea, kontuan izanda udalak prest zeudela enpresako partaide izateko konpromisoa hartzeko. Beraz, ez da adostasunik egon kapital mistoko enpresaren ezaugarrietan, ezta plataformak egindako kontzesio administratibo proposamenaren gainean ere.



GOIENKARIA

**Mankomunitateak erabaki du Zubillagako hiltegiak publiko izaten jarraitzea eta berak izatea ardura guztia.**

*Lakuntzaren ustez, plataformak proposatutako kudeaketa ereduak gauzak zailtzen ditu*

*Gaia eztabaidatzeko negoziazio mahai plural eta erreala behar dela uste dute oposizioko alderdiek*

*Plataformak plangintza egitea proposatu du, eta bilera deitu du horren berri emateko*

Mankomunitatearen arabera, sektorearen proposamena da kontzesio administratiboa egitea elkarte mugatu bati, zeinek 3.005 euroko gutxieneko kapital soziala izango lukeen. Mankomunitateak dio ulergaitza dela sektoreak proposatu izana Siadecoren lau alternatibetan kontenplatzen ez den aukera bat.

Kapital sozialaren zenbatekoa oso urria dela-eta bota dute atzera plataformaren proposamena, Ignazio Lakuntzaren esanetan. "Plataformak proposatutako kudeaketa ereduak gauzak zaildu baino ez ditu egiten. Hizketan aritu garen urtebetean ikusi dugu sektorearen konpromiso eta koherentziarik eza".

Lakuntzak txistetzat jo zuen plataformaren eskari zerrenda. Hala ere, zenbait eskakizun beteko dituztela adierazi zuen: "Beharrezko inbertsioak egingo ditugu eta baita kudeaketa plana ere".

## OPOSIZIOKO ALDERDIAK AURKA

Hiltegiaren gaineko erabakiaren berri emateko prentsaurrekoan, Mankomunitateko batzordean EAJk dituen ordezkariak bakarrik izan ziren. Izan ere, Alderdi Sozialistak ez zuen parte hartu hiltegiaren gaineko azken erabakiaren bozketan eta Aralar abstenitu egin zen.

Erabakiaren berri izan ostean, PSE-EE, PP, EB-Berdeak eta Aralar taldeek prentsaurrekoa egin zuten eta bertan esan zuten ez dutela egokitzat jo Mankomunitatearen erabakia. Euren ustez, "negoziazio mahai plural eta erreala behar da, alderdi guztiek osatutakoa".

Alderdiotako ordezkariek gaineratu zutenez, "oraindik ez dago kudeaketa planik eta horrek ez du ziurtatzen iraupena; beraz, dauden galerei eusteko plana eskatzen dugu; azpi-kontratazioei irtenbidea aurkitzea eta bost urterako inbertsio programa egitea. Horretarako, kudeatzen jardungo duen pertsona bat kontratatzeko eskatzen dugu. Izan ere, hiltegia hiltzen utzi nahi du EAJ-EAk. Eurek ere esana dute horrela jarraituz gero zerbitzua eten beharko dutela".

EAJ-EAk proposatutako kudeaketa mistoak izate publikoa baztertzen duela esan zuten, eta, era berean, ganaduzaleen hitza kontuan hartu behar dela.

## PLATAFORMAREN BILERA

Hiltegia Bizirik plataforma ere ez dator bat Mankomunitatearen erabakiarekin. Beraz, proposatu dute zerbitzuaren oraina eta geroa ziurtatzeko plangintza egitea honako puntuak kontuan hartuz: instalazioak berritzea eta datozen bost urteetarako inbertsio plana egitea; azpikontratatutako langileen egoera finkatzea; hiltegiaren kudeaketaz arduratuko den gerente independente bat kontratatzea; eta sektorearen partehartzea bermatzea Mankomunitatearen organoen bidez.

Hiltegiaren gainean hartutako erabakien berri emateko eta gaiaren inguruan egon diren azken mugimenduak sektoreko jendeari jakinarazteko bilera egingo dute uztailaren 18an, 20:30ean Oñatiko institutuan. Baserritarrak, harakinak eta hiltegiaren etorkizunarekin kezkatuta daudenak gonbidatuta daude bilerara. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 76 25 47 telefonora dei dezakete.

BIDELAN, bai esan
900 500 300
BIDELAN, Gipuzkoako AP-1 eta A-8 autobidea ustiatzeaz, mantentzeaz eta zaintzeaz arduratzen den enpresa.



ARGAZPI PRESS

Confebask-ek astelehenean izendatu zuen presidente Lazpiur, eta Roman Knörr ordezkatuko du karguan.

# Migel Lazpiur enpresaria izendatu dute Confebask-eko presidente

*Bakea lortzea da, besteak beste, Lazpiurren asmoetariko bat*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Migel Lazpiur Lamariano enpresaburu bergararra izango da aurrerantzean Confebask Euskadiko patronalaren presidentea. Roman Knörr ordezkatuko du karguan, hark postuan sei urte bete ostean.**

Adegik orain dela bi hilabete izendatu zuen Lazpiur presidentetzarako hautagai. Euskadiko patronalaren estatutuetan esaten ez bada ere, txandaka eta lurraldearen arabera aukeratu ohi dute presidentea. Confebaskeko lehen presidentea Jose Maria Vizcaino gipuzkoarra izan zen; bigarrena, Baltasar Errazti bizkaitarra eta hirugarrena, Roman Knörr arabarra. Beraz, ohiturari jarraitu eta gipuzkoarra aukeratu dute.

Presidente berriak azpimarratu duenez, bakea lortzea izango da bere helburu nagusia; baita sindikatuekin elkarrizketa berreskuratzea ere. Lehiakortasuna eta egonkortasuna ere behin eta berriz aipatu zituen.

**JOSE LAZPIUR TALDEKO GERENTEA**

Adegiko presidenteorde eta 180 langile dituen Jose Lazpiur Taldea holdingeko gerentea da egun Migel Lazpiur. Industri maisu tituluduna, 1960an enpresa txiki bat sortu zuen aitarekin; eta zenbait makina asmatu ditu piezen mekanizaturako. Lantegia Bergaran dago eta tresneria eta makineria berezia egiten du.

**IBARRETXEREKIN BILERA**

Presidente izendatu ostean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariarekin bildu ziren Confebaskeko buruak: Jose Guillermo Zubia oñatiarra, Confebask-eko idazkari nagusia dena, Migel Lazpiur presidente berria eta Roman Knörr orain arteko presidentea.

Batzar horretan adierazi zioten Ibarretxeri elkarrizketek emaitza onak eman ditzaten enpresaburuek ahal duten moduan lagunduko dutela eta elkarrizketaren bidea babesten dutela.

# Begirale ikastaroa antolatu dute euskara elkarteek

*Datorren ikasturtean izango da; lekua zehazteke dago*

I.A.

**Ibarrean aisialdiko begirale tituludunen beharra dagoela ikusita, Debagoieneko hainbat euskara elkartek begirale ikastaroa antolatu dute datorren ikasturterako. Ibarrean izango da ikastaroa, baina lekua zehazteke dago.**

Axtroki, Loramendi, Jardun eta Txatxilipurdi elkarteek begirale ikastaroa antolatu dute datorren ikasturterako.

Elkarte horietatik esan digutenez, "ibarrean, haur eta gazteen aisialdi eskaintza gero eta zabalagoa izanik, zerbitzu horietarako behar diren begirale kopuruak ere gora egin du. Oso garrantzitsua da begirale modura jarduten dutenen heziketa egokia. Gainera, legeak eskatzen du begirale taldeko %30 tituludunak izate; laster Eusko Jaurlaritzak aisialdiaren gaineko dekretu bat kaleratuko du eta aurrerantzean ezinbestekoa izango da titulua".

Urtean barrena egiten diren ekintzak eta ume kopurua kontuan hartuta ia 280 begirale behar dira ibarrean. Arazoak izaten dituzte begirale tituludunak lortzeko eta askotan kontratatzen dituzte ibarretik kanpokoak.

Arazoari aurre egiteko asmoz antolatu dute ikastaroa, begiraleek titulua lor dezaten. Irailera bitartean egongo da izena emateko aukera aipatutako elkarteetan. Ikastaroa non izango den oraindik zehazteke dago.

*Tituludun begiraleen beharra dagoela ikusita pentsatu dute ikastaroa egitea*




# Anbulatorioan daude kontsulta guztiak, berritze lanak amaituta

GOIENKARIA

Arrasateko anbulatorioa berritzen urtebete pasa jardun dute. Bitartean, hango zerbitzuak Eskualde Ospitalean eman dituzte. Lanak amaituta kontsultak pasatu dituzte anbulatoriora; denak, dermatologiakoa izan ezik.

**ZERBITZUEN ANTOLAKETA BERRIA**

Eraikina lehengo bera da baina barrutik bota eta egitura berria eman diote; fatxada ere konpondu dute. Besteak beste, bigarren igogailua jarri, gelak egokitu eta hormak margotu dituzte.

Eraikina berritzeaz gain, anbulatorioko zerbitzuen antolaketa ere egokitu dute. Beheko eta lehenengo solairuetan medikuntza orokorra, pediatria eta odontologia kontsultak, erizaintza zerbitzuak, larrialdietarako gelak eta harrera bulegoa daude.

Bigarrenean, emagina, otorrinolaringologoa, ginekologoa eta oftalmologoa daude; eta hirugarren eta azken solairuetan traumatologoak, kardiologoak eta erreumatologoak, besteak beste.



# Epele-Kaskonategi bidea urtea amaitzerako gertu izango da

*Bikoiztu beharreko zatiak 860 metroko luzera du eta lau errei izango ditu*

GOIENKARIA

**Gipuzkoako Foru Aldundiko, Bidegiko eta Arrasateko Udaleko ordezkariek azalpenak eman zituzten, eguaztenean, Arrasaten Epeleko lotunean hasi eta Kaskonategiko biribilgunean amaituko den bidea zabaltzeko lanen gainean.**

Dagoeneko hasi dira Gi-627 errepidea bikoizteko lanak ,eta bide zati hori autobideko lanen osagarri izango dela esan zuen, lanen aurkezpenean, Josu Arrizabalaga Errepideetako zuzendari nagusiak. "Egunean 20.000 ibilgailu ibiltzen dira errepide zati horretan, eta gaur egun duen edukiera ez da nahikoa, eta gidariendako ez da erosoa ezta segurua ere bertan ibiltzea. Beraz, bidea zabaltzearekin lortuko dugu funtzionalitatea, edukiera handitzea, erosotasuna eta baita segurtasun osoa ere. Kontuan izan behar da ez dela berdin gidatzen autobidean eta gainontzeko errepideetan; eta hil bukaeran Epeleko lotunea irekitzen denean, hori trantsizio zati bat izango da autobideko gainontzeko lanak amaitutakoan".

Bikoiztu beharreko zatiak 860 metroko luzera du eta lanak egin ostean lau errei izango ditu: noranzko bakoitzeko bi, 3,50 metro zabaleko bi errei izango dituztenak.



I.A.

Epele-Kaskonategiko lanen nondik norakoak azaldu zituzten eguaztenean Arrasaten.

*Bidea zabalduta, gidariendako erosotasuna eta segurtasuna lortzea da helburua*

Sarbideak ere egokituko dituzte, segurtasuna hobetzeko. Egungoak zerbitzu bideetan barneratuko dituzte, edo mantendu. Eskuinalderantz egingo dituzte; eta bi muturretako biribilguneak erabili beharko dituzte ibilgailuek noranzko aldaketa egiteko.

**TRAFIKO HANDIA, TRABA**

Lanak egiteko orduan zailtasunik handiena da errepide horretan dagoen trafiko izugarria. Horregatik, hain zuzen ere, obrak orain hasi dira abuztuan trafikoa %15era jaisten delako. Aurreikusi dute lanak abendurako amaituta egongo direla.

AUTOBIDEA

### Eskoriatza-Arrasate zatiko proiektua hil amaieran esleituko da

**Trantsizioko zatia da Epele eta Kaskonategi artekoa, eta autobidearen bi zati lotuko ditu. Autobideari dagokionez, Eskoriatzatik Arlabanerako bideko lanak abian dira. Arlabango tunela, Gipuzkoako tunelik luzeena, da zati horretan arazo handien sortzen dituena. Besteak beste, lurrak izaera ezberdina duelako gune bakoitzean. Bestalde, Eskoriatza eta Arrasate arteko zatiaren proiektua ere idatzita dago eta hil amaieran proiektua esleitzea espero dute.**

EPELEKO LOTUNEA

### Uztailaren 29an zabalduko dute Epeleko lotunea

**Hilaren 29an zabalduko dute Epeleko lotunea, eta azken orduko lanetan dihardute. Obra zibila amaituta dago, zati txiki batean aglomeratuzko azken geruza botatzea baino ez da falta. Orain, instalazioak egiten dabiltza: argia, aireztapen eta suhiltzaileendako sistemak... Tunel horiek segurtasun neurri egokiekin ekipatuta daude; eta horiek ipintzeak lan izugarria dakar. Hala ere, Josu Arrizabalagak ziurtatu digu esandako epea beteko dela.**

TIRABIRAK ESKORIATZAN

### Bidegi eta Eskoriatzako lurjabeak ez datoz bat egokitutako proiektuan

**Bidegiko Nestor Aranak esan digu Eskoriatzako lurjabeak guztiz ados ez badaude ere eurek aurrera egingo dutela egokitutako proiektuarekin. "Puntu batzuk adostu genituen eta gehienak konponduta daude, baina beste hainbat kontutan iritzi kontrajarriak ditugu. Esaterako, eurek eskatzen duten zubi bidea egitea ez da posible, 20 urte barru erori egingo litzatekeelako; bestalde, Zarimutzeko tunela luzatzea ere teknikoki ezinezkoa da".**

## LABUR

### Arrasate da Espainiako Estatuko herririk aberatsenetakoa

Arrasate da Espainiako Estatuko hiri edo herri aberatsenetakoa herritarren errenta mailaren arabera (urtean 14.500 euro baino gehiago). Gipuzkoan, Arrasateren maila berean daude Astigarraga, Donostia, Elgoibar, Irura, Oiartzun eta Zarautz. Beste muturrean, errenta txikiena dutenen artean daude Zumarraga eta Legorreta. La Caixa aurrezki etxeak jaso ditu datu horiek bere ekonomia urtekarian. Bestalde, Debagoiena da eskualderik aberatsenetakoa. Herrialdeei dagokienez, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Girona dira aberatsenak.

### Erregistro zibilean inskripzioak euskaraz egin daitezke

Eguenetik aurrera Hego Euskal Herriko erregistro zibiletara ahoz zein idatziz euskaraz zuzenduz gero, euskaraz egingo dituzte inskripzio lan guztiak. Beste era batera esanda: seme-alaben jaiotza inskripzioak, ezkontza inskripzioak eta heriotza inskripzioak, besteak beste, euskaraz egin beharko dituzte erregistro zibileko liburuetan, baldin eta eginbide horiek betetzera joaten direnak ahoz edo idatziz erregistroko arduradunari euskaraz egiten badiote.

### Eibarko Egogain gerontologia zentroa berritzeko 2,5 milioi euro

Eibarren dagoen Egogain gerontologia zentroko eraberritze proiektua aurkeztu dute oraingo astean Foru Aldundiko arduradunek. Proiektu horren helburua da Egogain zentroa gizarte zerbitzu espezializatuen sistemaren erreferentzia izatea. Debagoieneko nahiz Debabarreneko herritarrei ere eskaintzen die zerbitzua zentro horrek. 2,5 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egingo du Diputazioak. Hileko, batez beste, 160 hitzordu hartuko direla aurreikusi dute. Iaz Foru Aldundiak 6.000 pertsonari egin zien balorazioa. Horietatik 1.500 inguru, hau da, %25, Debagoieneko eta Debabarrenekoak izan ziren.

Egogainen laguntza behar duten pertsonak bakarrik hartuko dituzte; izan adineko ezinduak, izan 65 urtetik beherakoak. 195 bizileku prestatuko dituzte adinekoentzat eta beste 50 ezinduentzat.

**0 km eta erabilitakoak**

Volkswagen Multivan TDi /00
Volkswagen Multivan TDi /99
Ford Transit TDCi /01
Ford Transit TDCi /02
Peugeot 307 HDi /02
Peugeot 306 HDi /01
Peugeot 206 HDi /01
Ford Focus Wagon TDi /02
Ford Focus Wagon TDi /02
Toyota Wagon DHD /02
Ford Galaxy TDi /02
Citroën Berlingo HDi /02
Seat Ibiza SDi /02
Ford Fiesta TDCi /04
Subaru Imp 2.0i TT /97

**4x4:**
Toyota Land Cruiser /99
Toyota Land Cruiser /01
Toyota Land Cruiser /00
Mitsubishi /98
Opel Frontera Sport /02

MENDIOLA
San Andres 10 D
Tel.: 943 77 21 00
**ARRASATE**

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
ARRASATE TEL.: 943 712 425 FAXA: 943 712 297
ARETXABALETA TEL.: 943 712 411 FAXA: 943 712 004
OÑATE TEL.: 943 718 080 FAXA: 943 718 045
SEIN
taldea
Euskadiko erreferente nagusia industria horniduran

ANTZUOLA

## Aihertarrak etorriko dira bihar eta bazkaria egingo dute

Aiherrako Herriko Etxeko eta Beltzuntze elkarteko dozena bat lagun etorriko dira bihar, zapatua, Antzuolako jaietara. Lasterkaldia antolatzen jardun zuten Antzuolako Udaleko ordezkariekin eta herritar batzuekin batera bazkaria egingo dute.

Helburua da, besteak beste, bi herrien arteko harremanei eusten jarraitzea eta aurrerantzean antola ditzaketen ekitaldien gainean berba egitea. Era berean, jaiez gozatzeko eta herritarrekin egoteko aukera ere izango dute. /AINTZANE IRIZAR

ARAMAIO

## Adineko senideak zaintzeko dirulaguntza eskatzeko epea

Etxean laguntza behar duten senideak zaintzen dituztenek dirulaguntza eska dezakete. Hain justu ere, abuztuaren 11ra arte dute eskaera Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan aurkezteko.

Zenbait baldintza bete behar dira: 25 urtetik gorakoa izatea, Araban erroldatuta egotea hiru urteotan eta adinekoarekin familia-loturaren bat izatea, besteak beste. Adinekoak, berriz, 60 urte beteta izan behar ditu, hiru urte Araban erroldatuta eta egunerokotasunerako norbaiten beharra izan behar du. /U.M.

ELGETA

## 'Cocidito Madrileño' antzezlanerako sarrerak salgai Espaloian

*Cocidito Madrileño* antzezlan a egingo dute Espaloian irailaren 2an, eta sarrerak salgai ipini dituzte jadanik bertan. 12 euro balio dute sarrerek eta hamar euro ordaindu beharko dituzte bazkideek. Ikuskizunak beste hainbat herritan izandako arrakasta ikusita, antolatzaileek esan dute sarrerak lehenbailehen erostea komeni dela. Erreserba telefonoz ere egin daiteke (943 78 90 85). Izan ere, lehen emanaldiko sarrerak agortuz gero, beste bat antolatzeko aukera egongo litzateke. /I.A.



BERRIGARA

BERGARA

## Tito's eta Fo Fo Fo taldeen arteko finala gaur, Ipintzan

Elgetako Fo Fo Fo eta Bergarako Tito's Getokuak futbol taldeak aurrez aurre izango dira gaur, egubakoitza, Ipintzako txapelketako gizonezkoen finalean, 20:00etan. Angiolak eta Fo Fo Fo taldeek jokatu behar zuten, baina Angiolak uko egin dio finala jokatzeari. Hainbat jokalari antzuolarrak dira, eta, jaiak direla eta, finalera etortzerik ez dutela esan dute. Angiolak finala atzeratzea eskatu zuen, baina antolatzaileek ezinezkoa zela esan zioten. Ondorioz, finalerdietan galtzaile atera ziren taldeen artean erabaki zen beste finalista: Tito's taldeak 3-0 irabazi zion Hotel Ormazabali, eguaztenean. Ligako finalaren aurretik kopako finala jokatuko dute A Ze Flaxak eta Santa River taldeek, 18:45ean./E.M.

OÑATI

## Ruta Quetzal espedizioko 400 bat lagun Oñatira helduko dira eguenean

Datorren eguenean, uztailak 21, Ruta Quetzal espedizio ezaguna iritsiko da Oñatira. 400 bat lagunek osatzen dute espedizio hori, eta egun osoa egingo dute Oñatin.

Araba aldetik, Elgea mendian barrena, Urbiara helduko da Ruta Quetzal 2005 espedizioa. 08:00ak aldera iritsiko dira Urbiara. Handik Araotzera joango dira eta arratsalderako Oñatira jaitsiko dira.

Urbian artzaintzaren ezaugarriak ikusiko dituzte gertutik. Arantzazuko frantziskotarrek basilika eta inguruak erakutsiko dizkiete eta bazkaltzera Araotzera joango dira. Lope de Agirreren jaiotetxea ikusi ostean, 17:00ak aldera iritsiko dira Oñatira. Unibertsitatea eta parrokia ikusiko dituzte bisita gidatu batean, eta Jose Antonio Azpiazu historialariak Oñatiri buruz hitz egingo die. 19:00etan, autobusa hartu eta Udanara joango dira. Handik, Mirandaolara abiatuko dira eta bertan pasatuko dute gaua.

**'TXOKOLATEZKO ONGIETORRIA'**

Klaxk elkarteak txokolatea emango die meriendatzeko. Unibertsitatean, ogia, txokolatea, ura eta esnea eskainiko dizkiete. Baita linternak ere. Irudi berezi bat ere egingo dute egun horretarako: txokolatezko artzaina eta txakurra. Irudia iraileko txokolate azokarako gordeko dute.

Miguel De la Cuadra Salcedo ohorezko kofradiakide izendatuko dute eta Amerikako eta Oñatiko txokolateak eta kakaoa probatuko dituzte. /O.E.

**Zertzelada**

**08:00etan Urbiara helduko dira Elgeatik, Lope de Agirreren jaiotetxea ikusiko dute eguerdian Araotzen, eta Oñati arratsaldean**

ARRASATE

## Etxebizitza sozialak eta babes ofizialekoak eraikitzeko lanak, hasita

200 etxebizitza eraikitzeko lanak hasi dituzte Eskualdeko Ospitale inguruan. 100 babes ofizialekoak izango dira eta beste horrenbeste etxebizitza sozialak edo alokairuan ematekoak. Hain justu ere, bi bloke eraikiko dituzte.

Horrez gainera, Udala aztertzen dabil gune berean, Arrasateko Musika Eskola inguruan, etxebizitza gehiago eraikitzeko aukera. Gazteei zuzendutako etxebizitzak izango lirateke, alokairuan emateko bost urterako eta 10 edo 15 urteren ostean, babes ofizialeko etxebizitza moduan saltzeko. Kutxa eta Caixa aurrezki kutxekin dabil Udala proiektua aztertzen, eurek eraikiko lituzkete-eta. /U.M.



U.M.

**Zerrajera inguruan eraikiko dituzte 200 etxebizitzak.**

ARETXABALETA

## Kultura etxe eta zinemako lanak zeinek egin erabakiko dute

Santa Kurtz kaleko 20. zenbakian dagoen eraikina bota eta kultura etxe eta zine areto berriak egingo dituzte laster. Horretarako, baina, herrigune historikoa birgaitzeko plan berezia aldatu behar dute, eraikinaren itxura ez delako mantenduko. Foru Aldundiak onartu behar du hori Eusko Jaurlaritzako txostena jaso ostean, eta oraindik zain dago. Hala ere, onartuko duten zalantzarik ez daukate Udalean, eta eguenean, uztailak 21, lanok zeinek egin erabakitzeko osoko bilkura egingo du udalbatzak. /M.A.

ESKORIATZA

## Gellao eta Gorosarrirako bideen auzia gaur da argitzekoa

Gellao auzoko bide baten eta Gorosarrira igotzen denaren jabetzari buruzko zalantzak ditu Udalak. Udalbatzaren ustea zuzena bada, bide horien erabilera publikoa litzateke, baina bizilagunek jabetza pribatukoa dela diote.

Alegazioak aurkezteko epea iraungita, gaurko osoko bilkuran erabakiko da auzia. Gaiaren inguruko dokumentazioa ikertu eta lekukoei itaunketak egiten ibili da orain arte Udala, baina datu askok, zalantzak argitu baino gehiago, areagotu besterik ez dute egin. /JON BEREZIBAR

LEINTZ GATZAGA

## Udalekuetan aspertzea bekatua da Gatzagako gaztetxoendako

Astelehenean hasi zituzten Gatzagako neska-mutikoek udalekuak, bi begiraleren begiradapean.

Bi astez ibiliko dira hara eta hona, eta oraingo astean dagoeneko Otxandioko igerilekuan, Gatzainuzketako mendi-etxeetan, eskulanak egiten edota altxorraren bila ibili dira. Atseden hartuko dute asteburuan; begiraleek bai, behintzat.

**KZGUNEAN, IKASTAROA**

Astelehenean, *Irakurri egunkariak* ikastaroa emango dute. /X.U.

# Gutunak

## Oñatiko plaza: bandoa eta jolasa

Maiatzaren 23an honako gutun hau aurkeztu genuen Oñatiko Udalean. Inongo erantzunik ez dugu jaso. Ikusita GOIENKARIAn beranduago argitaratutako iritzi gutun bati Udal Tokiko Batzarrak erantzuna eman diola, bide bera erabiltzea erabaki dugu.

Alkate jauna, 4, 5, 6 eta 7 urteko semealaben guraso talde bat gara eta Oñatiko plazan umeen kirol praktiken inguruan alkatearen bandoaren gainean adierazpen batzuk egin nahi ditugu.

Umeak kirol praktikak egiteko plaza erabili beharrean pilotalekura joan daitezela eskatu duzu, baina eskaera horrek baditu bere trabak:

1. Plazatik pilotalekuraino babestutako pasabidea falta da; tartean aparkalekua dago (dukeak Udalari jolastoki moduan erabiltzeko utzita?) eta haurrentzat auto artean ibili beharra arriskutsua da.

2. Sarritan zikina egoten da: kristalak, txiza… (egunero garbitzen al da ?).

3. Plazan jolasten aritzen diren ume guztientzat lekurik ez dago eta batzuetan bakar batentzat ere ez (nahikoa da mutil gazte koadrila bat erraketaz jolastera joatea frontoi guztia arratsalde oso batez okupatuta egoteko).

4. Pilota partidak eta entrenamenduak daudenean ezin da bertan jolas egin.

5. Ez dago argi artifizialik (negua luzea da), e.a.

Bestalde, gure ustez:

1. Oñatiko plaza, obrak egin zirenez geroztik, adin guztietako jendea bertan elkartzeko toki oso aproposa da. Eta bertan paseatzeko, eserita egoteko, edo jolasteko leku ederra.

2. Kalean jolastea (gero eta zailagoa den arren) umeen garapenerako osasungarria eta onuragarria dela badakigu eta horregatik, umeei horretarako aukera ematen saiatu behar dugu. Beharrezkoa dutelako eta euren eskubidea delako baita ere.

3. Plaza guztiona da eta guztiontzako tokia dago.

Esandakoagatik eta orain arte sortu diren arazoak ikusita; debekua zenbat bete den kontuan hartuta; egungo plazaren alaitasuna eta bizitasuna estimatzen dugulako; bertan baloiaz dabiltzan haurrak 9 urtetik beherakoak direlako; ematen duen zerbitzua eta umeak bertan jolasteari uko egin beharrarekin auzokide eta herritar askok galduko genukeena baloratu eta gero, ondoren datorrena adierazten eta eskatzen dizugu:

a. Guztion eskubideak eta gogoak kontuan hartzea eta plazan baloiaz jolastea ez debekatzea. Nahi bada, ondo legoke arau batzuk jartzea —baloi bigunak erabiltzea, eliz ataria errespetatzea, adina mugatzea edo bizikleten abiadura zaintzea, adibidez—, baina inoiz ez, jolastea debekatzea (astakeria galanta litzateke, esate baterako, bertan paseatzea debekatzea, umeek leku handiagoa izan dezaten).

b. Eta argitaratutako bandoa bertan behera uztea lehenbailehen.

Eskerrak zure arretagatik eta laster zure erantzuna jasoko dugulakoan, agur.

MIREN JASONE ELORTZA, OÑATIKO GURASO TALDE BATEN IZENEAN
Oñati

## Juan Jose Ibarretxe lehendakariari

Lerro hauen bitartez aditzera eman gura dizkizugu Fagor Kooperatiba Elkartea Taldeko Kontseilu Sozialak joan den ekainaren 17an egin zuen batzarrean hartutako erabakiak, Debagoieneko Eskualde Ospitaleari buruzkoak.

Eskualde Ospitalearen egoeraren gainean gure enpresako langile bazkideen ordezkari den organo honek bildutako informazioaren arabera, ospitaleak gabezia garrantzitsuak ditu. Gabezia handiak beste eskualde ospitale batzuekin alderatuta, eta hain justu ere, Debagoienaren antzeko populazioa duten ospitaleekin konparatuta: Zumarragako eta Mendaroko ospitaleak.

Laburbilduz, honako hauek dira beste ospitale horiekiko Debagoieneko Eskualde Ospitaleak dituen gabeziak:

- Ospitalearen azalera (metro koadroak) nabarmen txikiagoa da. Eta horrek eguneroko lanean dauka eragina, pertsonalean zein azpiegituretan. Esate baterako, ohe kopurua, erabiltzaileak hartzeko tokiak, eta abar ez dira nahikoa. Horregatik uste dugu beharbeharrezkoa dela beste eraikin bat egitea, zerbitzu gehiago eskainiz, gaur egungo eskaintza osatze aldera.

- Zerbitzuei dagokienez, gure eskualde ospitalean ez dauzkagu hainbat espezializazio. Hain justu ere, ez daukagu Pneumologia, Neurologia, Urologia, Hematologia, Endokrinologia eta Nefrologia espezializazio berezirik.

- Erdi mailako zerbitzuei dagokienez, ebakuntza egin osteko Suspertze Unitatea badaukagu, baina gabezia larriak ditu, bai giza baliabide zein materialen aldetik.

- Uste dugu bidezkoa dela gure eskualde ospitaleak Zaintza Berezietarako Unitatea (UCI) edukitzea, edo, gutxienez, gaur egungo zerbitzuaren eta aldarrikatzen dugun UCI horren erdibideko bat.

- Azkenik, ez daukagu Unitate Medikalizatu propiorik. Zerbitzu hau behar denean Gasteizera eskatu behar dute, horrek dakarrenarekin.

Gure ikuspuntutik, azaldutako egoera hau guztiz bidegabea da, eta agerian uzten du populazioa behar den moduan hartzeko baliabide gabezia. Denondako ganorazko Osasun Publikoa eskaini behar badugu, baliabideak egokiago banatu behar direla uste dugu, ongizatea eta bizi kalitatea bermatze aldera.

Bestalde, ez dugu ahaztu nahi gure eskualdeak ematen duela, zergen bitartez, ganorazko zerbitzu publikoen baliabideak finantzatzeko adina errekurtso. Euskal Autonomia Erkidegoko beste edozein lurralde edo eskualde batzuk beste edo gehiago, gainera.

Hemen azaldutako egoera zorrotz aztertzen baduzu, ikusiko duzu gureak direla gutxieneko eskariak.

Gogoratu nahi dugu, azkenik, Eusko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmenaren ondorioz, 2007. urtean Osakidetzara pasatuko direla gaur egun Lagun-Arokoak diren mutualista guztiak (15.000 erabiltzaile) eta horrek ageriagoan utziko ditu gure eskualde ospitalearen gabezia larriak.

Gure eskaerak aintzat hartuko dituzulakoan, agur.

JOSEBA UGALDE, FAGORKO KONTSEILU SOZIALAREN IZENEAN
Debagoiena

## Bizilagunak ez gabiltza oker

Gutun honen bidez, Aretxabaletako Lucio Garai SA enpresaren aurkako denuntziei buruz GOIENKARIAren Leintzeko edizioan —*Aretxagazeta*-n hain justu ere— aurreko astean argitaratutako artikuluaren inguruan argipen batzuk egin nahi ditut.

Arestian aipatutako artikuluan, Aretxabaletako Udaleko Hirigintza Saileko arduradunak esaten duenez, Iralabarri plazako bizilagunak ez gabiltza zuzen adierazten dugunean Aretxabaletako Udala arazoari irtenbidea aurkitzeko lanean ez dabilela. Bere esanetan, Aretxabaletako Udalak Iralabarri plazan bizitzeko baimena ematearekin batera, Lucio Garai galdategiari zaraten inguruan dituen hutsuneak konpontzeko hartu beharreko neurriak komunikatu zizkion, eta honekin batera, galdategiaren aktibitate proiektua oso-osorik aurkezteko eskatu ere.

Bizilagunek Udalak egindako gestioan kritikatzen duguna zera da:

1. Ulertezina da bizitzeko baimenak eman zirenean (urteak dira dagoeneko) enpresari bere egoera legeztatzeko eskaera egin bazitzaion, Udalak itxarotea bizilagunak egoera honetaz nazkaturik egin eta denuntziak jarri eta sinadurak jasotzera. Gainera, jakinda, aurretik Udalean galdategiaren inguruan dauden beste etxebizitza eta enpresen kexak jasoak dituztela.

2. Era berean, ez da ulertzen gure lehengo kexak Iralabarriko lehen etxeak entregatu zirenean egin baziren (2004ko abenduan), Udalak neurriak orain dela aste gutxi batzuk hartu izatea. Eta gure desengainurako, Udalak hartutako neurri hauek urteak direla enpresari eskatutakoa berriz eskatzea izan da. Ez da beste neurririk hartu, nahiz eta Udalak onartu enpresaren aldetik ez direla ezarritako limiteak betetzen, oraingoz bizilagunek erauzgailuen eta konpresoreen zaratak direla-eta ezin dugula lorik egin, galdategiak gauez leihoak zabalik egiten duela lan eta tximiniek botatzen duten hauts eta zikinkeria guztia jasaten gabiltzala.

Inork ez du sinisten herriko beste edozein enpresa edo negoziok (tabernak, tailer txikiak…) hainbeste denbora iraungo zuenik legea bete ez eta zigorrik jaso gabe. Zergatik ez dira hemen neurri horiek hartzen?… Norbaitek badu erantzuna.

JUAN CORRAL,
IRALABARRIKO BIZILAGUNA
Aretxabaleta

## Bergarar bat Euskadiko enpresaburuen buru

Migel Lazpiur bergararra izendatu dute Euskal Autonomia Erkidegoko enpresaburuen buru, hau da, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako enpresaburuen elkarteak batzen dituen Confebask-eko buru. Uste dut hori poztekoa dela bergararrontzako eta baita eskualde honetako guztientzako ere. Poztekoa da, herriko seme bat hor goian ikustearren eta, poztekoa, era berean, hemengo enpresaburuen burua euskalduna izatearren, orain artekoak ez duelako euskaraz egiten.

Migel Lazpiurrek ez dauka erronka erraza eta hartu berri duen postu horrek hamaika buruhauste sortuko dizkio seguruen, Euskal Herrian enpresaburu izatea ez baita batere erraza. Baina konpromisoa hartu du eta ondo eutsiko dio eginkizun berriari, ziur.

Azpimarratu nahi dut Migelek euskaraz jardun zuela kargua hartzeko ekitaldian eta kazetariei agindu ziela nahi bazuten euskaraz erantzuteko gauza ere bazela, eta Euskal Herrian euskaraz egitea —baita enpresaburuen buruak ere— logikoa zela. Gustatu zitzaidan detaile hori. Horretaz gain, bakea lortu beharraz ere jardun zuen bere hasierako berbaldian, eta hori ere nabarmentzekoa dela uste dut. Bakea guztiok behar dugu herri honetan, baina enpresaburuek batez ere.

J. MARTINEZ
Bergara

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Frantziako Brandt enpresa erosi du Fagor Etxetresnak enpresak ekainean, eta 11.000 langile inguru dira orain. Erosketak bosgarren postuan jarri du Fagor Europan. Alemaniara abiatu aurretik hartu gaitu zuzendariak bere bulegoan.

OIHANA ELORTZA



FAGOR

# *Pablo Mongelos*

FAGOR ETXETRESNETAKO ZUZENDARI OROKORRA

# "Mundua lehen baino globalagoa da, eta kooperatibismoa aldatu egin beharko genuke"

FAGOR ETXEKOTRESNAK-EKO DATU BATZUK

**"11.000 langile gara 16 lantegitan; 17 filial komertzial ditugu eta 18.000 etxetresna produzitzen ditugu egunero; munduko 80 herrialdetan saltzen ditugu"**

MCC ETA ETA LOTZEN DITUZTEN MEZUAK

**"Interneten agertu diren mezu horiek ez digute, hasiera baten, kalterik egin; Fagor nahiko finkatuta dago merkatuan, ezagutzen gaituzte, eta salmentetan ez dugu arazorik ikusi"**

**Gero eta handiagoa da Fagor Etxetresnak. Non du muga?**

Merkatuak berak jartzen digu muga, merkatuak egunero izaten duen eboluzioak. Mundu globalizatuak ere zerikusi handia du horretan. Merkatu eta mundu globalean daude mugak.

**Merkatuan bakarrik?**

Merkatuak eskatzen dizun lehiakortasun mailan, hain zuzen ere. Lehiakortasun eta banaketa egoerei aurre egiteko, merkatuaren globalizazioak berak behartzen gaitu handitzen, hazten, jarraitzera eta baita handitu beharra izatera ere.

**Frantziako Brandt enpresa izan da egin duzuen azken erosketa?**

Bai, baina sasoi berean Azpeitiko Grumal enpresa ere erosi dugu. Brandt baino txikiagoa da, baina erosketa hori ere garrantzitsua da Fagorrendako. Sukaldeko altzariak egiten dituen enpresa da, Oñatin dugun produkzioaren osagarria. Sukaldeko altzarietan lehenak izatea da gure estrategia, eta, hain zuzen ere, horregatik erosi dugu.

**Nolakoa izan da Brandt enpresa erosteko prozesua?**

Ez da aukera kontu bat izan. Nik uste dut geneukan desio bat zela enpresa hori geure egitea. 1980ko hamarkada ezkero ditugu harremanak lehengo Thomson eta Electromanager etxeekin. Elkartu egin ginen eta akordio asko egin genituen bai Frantziako eta bai Ingalaterrako merkatuen inguruan. Erosketek, industrializazioaren ezaugarriek eta bestelako gaiek markatzen zizkiguten lan ildoei buruz egiten genituen akordioak.

Merkatua eta lehiakortasuna asko aldatu dira urte hauetan eta duela hiru urte aukera izan genuen Brandt erosteko. %10ekin sartu ginen. Horrek aukera eman zigun enpresa hobeto ezagutzeko eta lan egiteko produktuaren garapenean, salmenten esparruan eta arlo industrialean. Modu horretara ikusi genuen bagenuela aukera gainerako %90 erosteko.

**Zer ekarri dio horrek Fagorri?**

Batetik, aukera garrantzitsua izan da guretako. Egun, merkatuan ez dago aukera askorik erosketak egiteko. Bestetik, Europan bosgarrenak izatea esan nahi du erosketak, horrek dakarren sinergiarekin. Horrelako esperientzia edo abenturek ez lukete zentzurik izango gainean duten sinergiarik gabe: tamaina bikoiztea eta ikustea nola aurkez zaitezkeen banaketaren aurrean, Europako lau merkatu garrantzitsuetako bitan liderrak izanda, adibidez. Nazioartean zabaltzen ere laguntzen du, jakina. Sei marka berri eskuratzea ere ekarri digu.

Oso pauso garrantzitsua izan da, duda barik. Uste dut Fagorrek hartu duen bigarren erabaki garrantzitsuena dela. Lehenengoa sortzea izan zen, duela 50 bat urte.

**Zenbat langile zaudete orain?**

Brandt enpresa erosi ondoren, 4.000 gehiago gara; 11.000 guztira, 16 lantegitan.

**Deszentralizazioa ekarriko du?**

Beti kezkatzen gaituen gaia da hori. Gure sektorean sarritan errepikatzen da multinazionalak sartzen direnean, enpresaren erabakiak ez direla dagokion enpresan, plantan, hartzen, gune zentralean baizik. Adibidez, Espainia eta Frantzian enpresak izan arren, erabakiak Alemanian, AEBn edo Suitzan hartzen dituzte. Gure kasuan, erabakiak hementxe hartuko ditugu, Arrasaten. Eta berme hori izatea oso garrantzitsua da.

**Eta horrelako erosketa batek zer aldaketa eskatzen dio Fagorri?**

Aldaketa handiak. Hasteko, gure barne egitura aldatu, moldatu, egin behar dugu gestioa behar bezala egiteko, eta nazioartean lan egiten duen jende gehiago behar dugu hemendik aurrera. Lehen baino lan handiagoa dugu egiteko, baina oso proiektu polita da eta ilusio handiz hartu dugu. Frantziako lagunak ere zain daude ikusteko erosketa horrek zer ekarriko dien, baina uste dut eurendako ere notizia ona dela.

**Zenbat etxetresna produzitzen, egiten, dituzue egunero?**

18.000.

**Non saltzen dituzue?**

80 herrialdetan. Tartean daude, adibidez: Espainia, Portugal, Frantzia, Maroko, Polonia, Txekia, Hungaria eta Txina.

Bestalde, 17 filial komertzial ditugu eta horiekin batera, beste herrialde askotara ere heltzen gara: Tailandia, Malaysia, Ingalaterra, Belgika, AEB...

**Zer eman edo kendu dio Europaren zabalkundeak Fagorri?**

Aukera garrantzitsua izan da, arlo baten baino gehiagotan, gainera. Gu, adibidez, Polonian sartu ginen eta Mastercook markarekin lehenak gara Polonian egosketan. Orain, gainerako produktuekin ere lehenak izan nahi dugu, eta lanean ari gara hori nola lor dezakegun ikusteko. Era berean, Poloniak ekialdeko beste herrialde batzuetara heltzeko aukera ere ematen digu.

Hala ere, uste dut oraindik gauza asko ditugula egiteko ekialdeko herrietan. Ilusio handia dugu, gainera, eta poliki-poliki aztertu eta aprobetxatu egingo ditugu bai erosketa aldetik eta bai produkzio eta salmenta aldetik herrialde horiek ematen dizkiguten aukerak.

**Badago arriskurik produkzioa, lana, herrialde horietara eramateko?**

Antzerako erabaki bat hartzen dugunean, errentagarritasun negatiboa duten produktuen gainean hartzen dugu. Bi gamatan egin dugu guk hori. Hala ere, uste dut aukera bat dela, beste faktore batzuekin batera ondo lotzen bada, noski.

Gure estrategian, garrantzi handia duen puntu bat dago: ekintza berrietan berriztatzea. Arlo horretan lan egingo duen lantalde bat dago eta hura arduratuko da, adibidez, aztertzeaz lan horiek beste herrialde batzuetan egin daitezkeen eta horrek Fagorri zer dakarkion. Momentu honetan, sei produktu berri egiten ari gara, horien artean, arropa lehortzen eta lixatzen duen aparailu bat.

**Beldurra izan behar zaio Txinari?**

Kontuan izan behar da. Uste dut ez dagoela arerio ahulik eta kontuan izan behar dira guztiak. Merkatuaren alde baxuan indartsu datoz bai Txina eta bai Turkia, eta ezberdintzen gaituzten zerbait ematen saiatu beharko dugu, eurek eskaintzen ez duten zerbait ematen.

**Kooperatibismoa ezarri duzue Fagor heldu den herrialde guztietan? Nolakoa izan da lan hori?**

Kooperatiba bezala hemen bakarrik funtzionatzen dugu. Horrek ez du esan nahi, hala ere, gure balioak beste herrialde batzuetan ezarri nahi ez ditugunik. Baina herrialde bakoitzak bere historia, kultura, ohiturak, ditu. Orain, adibidez, aztertzen ari gara bai Marokon bai Polonian ditugun enpresetan nola erakutsi edo nola ezarri kooperatibaren ezaugarriak.

Dena dela, kooperatibismoa berriro asmatu behar dugula uste dut. 50 urtean aldatu egin da; mundua lehen baino globalagoa da, hemendik kanpora ere lanpostu asko ditugu eta eguneratu egin beharko dugu kooperatibismoa.

**MCC eta ETA lotzen dituzten Interneteko mezuek ze kalte egin dizuete?**

Hasiera baten, ez dut kalterik nabaritu. Fagor nahiko finkatuta dago merkatuan, ezagutzen gaituzte, eta oraingoz, ez dugu salmentetan ere arazorik ikusi.

**Ze lehentasun dituzue hemendik eta urte bukaerara bitartean?**

Brandt enpresaren erosketa indartu, batetik. Ekainaren 15a ezkero gara enpresaren jabeak, tratuak lehenago hasi baziren ere, eta Brandt Fagorren integratzeko lana dugu orain. Bestetik, plan estrategikoa berriro aztertu behar dugu eta bermatu gestio planak bete egingo direla.

# Hawaiiko Ironman probara joateko, kamisetak salgai daude

## Antxintxika taldeko Xabi Lekue Hawaiin izango da, urriaren 15ean

XABIER URTZELAI

**Munduko Txapelketan esku hartuko du Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldeko Xabi Lekuek. Bidaiaren aurrekontuari aurre egiteko babesleak behar ditu, baina ez dago gora begira. Taldekideen laguntza du, eta laster aterako dituzte kamisetak.**



GOIENKARIA
**Xabi Lekue ezkerrean, Antxintxikako lagunekin batera, triatloiaren aurkezpenean.**

Antxintxika Taldeko Jose Mari Barrenak azaldu digu kamisetak lagunartean salduko dituztela, baina pentsatzen dabiltzala taberna batzuetara ere eramatea: “Diseinu polita izango dute kamisetek, eta kalitate onekoak izango dira. Tabernatan salgai jartzen baditugu, seguru jendea animatuko dela erostera”. Horrekin batera, inguruko triatloi taldeen artean ere banatuko dituzte: “Beste taldeetako jendea kanpora joan denean guregana etorri dira materiala saltzera, eta guk ere beste horrenbeste egingo dugu; horrelako tratuak egiten ditugu triatloi-zaleok”.

Kamiseta horiek datorren astean egongo dira salgai, baina asteburuan erosi gura dituenak, Trintxerpeko jaietara joan beharko du, hantxe jarriko duteeta Xabi Lekuek eta lagunek txosna bat: “Hemen jaiak dira, eta jarriko dugun txosnan kamisetak saltzearekin batera, bizikleta bat ere zozketatuko dugu”.

Kamisetaren diseinuaren gainean ere galdetu diogu Barrenari: “Zerbait ezberdina gura genuen, eta Artemanekoei eskatu genien Hawaiiko loreak erabiltzeko kamisetaren diseinua egiterako orduan; gustatu zaigu zelan geratu den”. Hasteko, 600 kamiseta aterako dituzte, eta ondo saltzen badituzte aterako dituzte gehiago.

**ABUZTUA GOGOR ENTRENATZEN**

Urriaren 15ean egingo du Antxintxikako atletak Hawaiiko proba gogorra, eta egun hori iritsi arte egingo duen entrenamenduaren gainean galdetu diogu Xabi Lekueri: “Joan den astean hasi nintzen berriro ere entrenatzen, deskantsua hartu dut-eta. Komeni zitzaidan geldialdi bat egitea, azken hilabeteotan egur dezente eman diot-eta gorputzari: Lanzaroteko Ironman proba, inguruko hainbat triatloi... Abuztuan gogor entrenatuko dut, eta opor barik geratuko naiz. Lagunak kanpora joango dira, eta lasai geratuko naiz herrian”.



GOIENKARIA
**Artemanek egin duen diseinua.**

Ingurukoak ametsa egi bihurtzeko egiten dabiltzan lana kontuan hartuta, Hawaiirako presiorik bai?: “Bai, esango nuke baietz, igartzen dut. Lagunak eta taldekideak laguntzen dabiltza, eta ez dut gura kale egitea. Dena dela, horrelako proba batean edozer gerta daiteke: bizikletarekin arazoak, baba bat hankan...”. Dena dela, Antxintxikakoak proba lasai egin gura du, helmugara iristea du helburu, munduko onenen kontra lehiatuko da-eta.

## *Kirolabur*

**ARETXABALETA/**ZORTZINAKO FUTBOL TXAPELKETA

Bihar egingo dute Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian koadrilen arteko zortzinako futbol txapelketa. Dagoeneko 10-12 laguneko 16 taldek eman dute izena. Horrek esan gura du 180 jokalari batuko dituela Kilometroen egitarauaren barruan dagoen kirol ekimenak. Norgehiagokak goiz eta arratsalde egingo dituzte.

**ARRASATE/**ITZIAR MALLABIABARRENA

Gaur hasiko du Arrasateko pibotak Tunisian 19 urtez azpiko Munduko Kopako Saskibaloi Txapelketa. Hilaren 25ean amaituko dute txapelketa hori, baina ez du atseden hartuko, 18 urtez azpikoekin joango delako abuztu hasieran Hungariara, Europako Saskibaloi Txapelketara.

**BERGARA/**BOST TITULU IGERIKETA TXAPELKETAN

Bergarako igerilariak bost titulurekin itzuli ziren Euskadiko Txapelketatik. Ana Balentziagak 100 metroetan irabazi zuen, eta aurrealdean sailkatu zen 50 metroko eta 200 metroko lasterketetan. Nielka Ibarguenek ere lan ederra egin zuen, eta baita Mikel Labakak ere.

**ELGETA/**MENDIKO 21. ZIKLISMO PROBA, DOMEKAN

Domekan egingo dute Euskadiko Mendiko Criteriuma. Aurten, elite mailako amateurrak eta 23 urtez azpikoak lehiatuko dira. 10:00etan hasiko dute lasterketa, eta tarteko helmugak egongo dira Eibarren, Matienan eta Arrasaten. Horrekin batera, malda gogorrenak izango dituzte Areitio (32. kilometroan), Asentzio birritan, eta Elgetara igotzen (Bergaratik). 13:00ak aldera iritsiko dira helmugara.



**DEBAGOIENA/**HIRU AUTOBUS TOURRERA

Aurten ere koadrila galanta joango da Tourrera. Gaur arratsaldean irtengo dira 170 lagun inguru hiru autobusetan. Hori bakarrik ez, eurekin batera joango dira kamioi bat eta furgoneta bat, lagun horiendako guztiendako generoa eramateko. Zapatuan ikusiko dute Agde eta Ax-3 Domaine-ren arteko etapa, eta domekan Val Louronen jarriko dute kanpamendua, Saint Lary baino apur bat lehenago. Domekarako, gainera, paella galanta egiteko asmoa dute.




Guztia hutsaren truke
Orain 0€* -ren truke
eskuratu LG 2300, Motorola V547 edo Samsung X640 bat.
Eta gainera...
Hitz egin doan abendura arte**
* Leihoaren eta Hautaketaren bezeroentzako, ondoren ordaintzekotik aurretik ordaintzekora pasatutako bezeroentzako eta etxeko telefonia mugikorreko operadore nazional batetik etorrita alta eman duten bezeroentzako mugikorraren PSPa, betiere 2005/08/31 baino lehen kontratatzen badu ondoren ordaintzeko etxeko zerbitzua 6 €-ko kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez irauteko konpromisoa hartzen badu. Muga: 7.000 unitate.
** Sustapen honek 2005/08/31ra arte balio du. Estatuko deiak Euskaltel/Amenaren mugikorretara 0 €/min-ren truke, 2005eko abenduaren 23ra arte. Alta-kuota: 6 €. Fakturazio-ziklo bakoitzeko muga: 2.000 minutu. Deiaren ezartze-kostua sartu gabe. Sustapen hau ez da bateragarria beste sustapen hauekin: Nire Gogokoena, 5 a 5 zerbitzua, 3x2 kontratua, Duo Kontratu Librea eta 3 zent./min tarifarekin deitzeko sustapenak (sustapen horiek behin betiko galduko lirateke). Galdetu sustapen honen baldintzei buruzko informazioa saltokietan edo 900 840 840 telefono-zenbakian.
ROUTER COMUNICACIONES, S.L
Errebal, 15 behea
Eibar
Tel.: 943700369
Maalako Errebala, 8 behea
Arrasate
Tel.: 943712781
Euskaltel
-en Banatzaile Ofiziala


BELTZA
2004ko uzta
PLAZARA! kmk05
Leintz bailara
ARIZMENDI
KRIANTZA
2001eko uzta
Urrezko domina Bordelen
Kilometroetako ardo bikaina!
Eskaerak egiteko:
943 76 01 34 / 943 76 44 11
San Juan auzoa
BERGARA
Etxera eramaten dugu
Banatzaileak:
MEDRANO IRAZU
MINER ardoak
RIOJA
URTEKO ARDOA
KRIANTZA 2001

# PREZIORIK ONENA GEUREAN
# SUPER-ESKAINTZAK UZTAILA

## BALEARRAK — 8 egun / 7 gau

| | | |
|---|---|---|
| **MALLORCA** | | |
| CATALONIA SOL PINOS H. ** | ME | 284 |
| BAHAMAS H. *** | ME | 322 |
| SAMOS H. *** | ME | 348 |
| GÉMINIS H. *** | MO | 377 |
| TORRE AZUL H. *** | GB | 410 |
| **MENORCA** | | |
| SOL Y MAR APTU. 2LL occ. 4 pers. | OB | 284 |
| CONFORTEL SOL PARC APTU. 2LL occ. 4 pers. | OB | 308 |
| CISNE BLANCO APTU. 2LL occ. 4 pers. | OB | 324 |

## KANARIAK — 8 egun / 7 gau

| | | |
|---|---|---|
| **TENERIFE - Puerto de la Cruz** | | |
| CHIMISAY H. *** | ME | 265 |
| CONCORDIA PLAYA H. **** | ME | 365 |
| INTERPALACE H. **** | ME | 365 |
| SOL PARQUE SAN ANTONIO H. **** | ME | 385 |
| **TENERIFE HEGOALDEA** | | |
| TENERIFE GOLF H. **** | ME | 347 |
| FIESTA OASIS PARAÍSO H. *** | ME | 363 |
| FAÑABÉ COSTA SUR H. **** | ME | 461 |
| H10 LAS PALMERAS H. **** | ME | 478 |
| **LANZAROTE** | | |
| HG GUACIMETA APTU. 3LL | OB | 300 |
| H10 TIMANFAYA PALACE H. **** | ME | 562 |
| PAPAGAYO ARENA H. **** | GB | 657 |
| H10 RUBICÓN PALACE H. **** | GB | 666 |
| **KANARIA HANDIA HEGOALDEA** | | |
| BEVERLY PARK H. *** | HG | 363 |
| BUENAVENTURA H. *** | ME | 407 |
| CATARINA H. **** | ME | 433 |
| **FUERTEVENTURA** | | |
| CLUB TOFIO APTU. *** occ. 3 pers. | OB | 310 |
| CALETA PARAISO APTU. 2LL | OB | 356 |
| CLUB TOFIO H. *** | GB | 382 |

## KARIBEA — 9 egun / 7 gau

| | | |
|---|---|---|
| **DOMINIKAR ERREPUBLIKA** | | |
| **PUNTA CANA** | | |
| NATURA PARK H. ***** | GB | 760 |
| IBEROSTAR DOMINICANA H. Luxu | GB | 825 |
| CATALONIA BÁVARO H. Luxu | GB | 825 |
| MELIÁ CARIBE TROPICAL H. Luxu | GB | 984 |
| **MEXIKO** | | |
| **MAIA ERRIBERA** | | |
| CATALONIA YUCATÁN BEACH H. S. Luxu | GB | 675 |
| OCCIDENTAL G. FLAMENCO XCARET H. Luxu | GB | 900 |
| RIU LUPITA H. ***** | GB | 955 |
| RIU TEQUILA H. ***** | GB | 974 |
| **KUBA** | | |
| **LA HABANA** | | |
| GRAN CARIBE PLAZA H. **** | HG | 627 |
| NACIONAL DE CUBA H. ***** | HG | 741 |
| **VARADERO** | | |
| MAR DEL SUR H. ** | GB | 670 |
| GRAN CARIBE VARADERO INT. H. **** | GB | 719 |

## 2x1 · ITSAS-BIDAIAK ·

LAGUNA DOAN

8 EGUN MANTENU OSOA

**GRAND LATINO** Uztailak 18 eta 25
KANPOKO KABINA — Perts. 1: 955 — Laguna: DOAN
Valentzia, Villefranche, Livorno, Civitavecchia, Napoli, Tunisia.

**GRAND MISTRAL** Uztailak 18
KANPOKO KABINA — Perts. 1: 1.145 — Laguna: DOAN
Bartzelona, Livorno, Civitavecchia, Napoli, Tunisia, Malta.
3 URTE ARTEKO UMEAK DOAN

**GRAND VOYAGER** Uztailak 19 eta 26
KANPOKO KABINA — Perts. 1: 1.555 — Laguna: DOAN
Venezia, Dubrovnik, Corfu, Heraklion, Rodas, Istanbul, Atenas edo alderantziz. HEGAZKINA BARNE MADRILDIK EDO BARTZELONATIK.

## Azken orduko Eskaintza Paregabea

**MALLORCA**
CLUB LAGUNA BELLEVUE H. 3LL (4 perts)
Irteerak 07/17 eta 21
8E/7G OB 237

**TENERIFE**
VALLE LUZ APTU. 2LL
Irteerak 07/20 eta 21
8E/7G OB 260

**LANZAROTE**
LAS GAVIOTAS BUNG. 2LL
Irteerak 07/20
(3 perts)
8E/7G OB 270

**PUNTA CANA**
IFA BÁVARO VILLAGE H. ****
Irteerak 07/16 eta 17
9E/7G GB 686

**LA HABANA**
G. CARIBE HABANA RIVIERA H. ****
Salidas 07/20, 21 eta 22
9E/7G GB 603



IRTEERAK BILBOTIK

ETA GAINERA APROBETXATU GURE ESKAINTZAK:
**ABUZTUKO SUPER-ESKAINTZAK**
Hileko edozein irteeratarako.
350€-tik aurrera

**Irteerak Bilbotik Karibera izan ezik; hori Madrildik eta itsas bidaia ibilbidearen arabera.** Prezioak pertsonako logela bikoitzean, kontrakorik esaten ez bada eta aurretik aipatutako erregimenean. Uztaileko irteera konkretuentzat bakarrik. Bi pertsonarentzako bat ordaindu eta bi egin eskaintzako azken prezioak. Karburantearen igoera, tasak, eskupekoak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Ostatua bakarrik HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu erdia, MO: Mantenu osoa, GB: Guztia barne.

BAL - 001 - M/M

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

VIAJES IBERIA

PR€ZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

902 108 108

viajesiberia.com

# Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko uztailaren 15a

Kultura eta aisialdia

Uztailaren 15etik 22ra



## JAIAREN BIDEZ, LAGUNTZA SAHARARI

### Etzi, domeka, Musakolako zelaian

Saharatik etorri diren umeei ongietorria eman, familiei eta udalei euren lana eskertu, Saharako kultura erakutsi eta hango giza eskubideen zapalkuntza salatu: helburu horiek guztiak beteko ditu etzi, domeka, egingo duten Sahara Orain jaialdiak. Arrasaten izango da, Musakolako zelaian, egun osoan. Euskal Herrirako antolatzen den halako lehen jaialdia da, eta Debagoieneko Nubi elkarteak antolatu du arlo bereko beste elkarte batzuen laguntzarekin. **/15**

AZALA: IÑAKI ITURBE

JAIALDIA/ 'SAHARA ORAIN' JAIA IZANGO DA ETZI, DOMEKA, ARRASATEN

# Sahararekin bat egiteko jaialdia

'SAHARA ORAIN' ELKARTASUN JAIALDIAK, EUSKAL HERRIKO LEHENAK, ENTRETENIMENDUA, KULTURA ETA ALDARRIKAPENA BATUKO DITU

LEIRE KORTABARRIA

**Euskal Herriko Saharako herriarekin elkartasuneko lehen jaialdia Arrasateko Musakolako zelaian izango da etzi, domeka. Debagoieneko Nubi elkarteak antolatu du, Euskal Herrian Sahararen alde lan egiten duten beste hainbat elkarteren eta saharar askoren laguntzarekin.**



Saharako tea probatzeko aukera izango da jaialdian.



Saharako lurralde okupatuetako egoeraren berri emango dute domekan.



Bergaran, Sahararen inguruko asteburua egin zuten iaz ekainean.



Hennazko tatuajeak dira Saharako ohituretako bat.

Etzi, domeka, Arrasaten egingo duten jaialdiak hainbat helburu bete gura ditu. Jolasak, aisialdia eta kultura elkartrukea izango dira aitzaki nagusia; horrekin, Oporrak Bakean programaren barne uda gurean pasatzera etorri berri diren saharar umeei ongietorria eman gura diete, eta eskerrak eman hartzen dituzten familiei eta programa horri laguntzen dioten udalei.

Beste helburua da aldarrikapena: horren barne, prentsaurrekoa eta ekitaldi politikoa antolatu dituzte, mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak bortxatzen ari direla salatzeko. Izan ere, jaialdiak *Sahara Orain* du izena, eta arrazoia azaltzen digu Nubi elkarteko Agurne Juldainek: "Sahararen egoera larria da, eta lehenbailehen lagundu behar diegulako aukeratu dugu izen hori". Jaialdian laguntzera joango dira Arrasatera Euskal Herrian dauden saharar asko, eta, Juldainen esanetan, "oso pozik daude, euren aldeko ekintza delako, euren egoerak oihartzuna izan dezan gurean".

### JOLASAK, SAHARAKO OHITURAK...

Oporrak Bakean programaren barne, 461 ume etorri dira aurten Euskal Herrira; horietatik 18 Debagoienean daude, eta berezikí eurendako pentsatutako ekintza asko egongo dira jaialdian. Eta, jakina, helduendako ere ondo pasatzeko moduko eskaintza egongo da. Animazioa goizetik hasiko da: 11:00etan, ongietorria egingo zaie; 11:30ean, tailerrak, puzgarriak eta jolasak izango dira. Ur-jolasak ere egingo dituzte, eta antolatzaileek gomendatzen dute ume guztiak bainu-jantziarekin joan daitezela. 11:30ean ere, patata tortilla lehiaketa izango da.

Arratsaldean, ekitaldi politikoaren ondoren, bazkaria egingo dute, 14:30ean; 16:00etan, *Kuko, Truko eta Bolenwaider de vacaciones en la playa* pailazo emanaldia ikusteko aukera izango da. 17:30ean, Taupada taldeak batukada egingo du.

Egun osoan, Saharako musika talde batek eta Arrasateko trikiti eskolak girotuko dute Musakolako zelaia. Horrez gain, Saharako ohiturak gertutik esploratzeko modua izango da: tedastatzea, henna tatuaje egileak eta Saharako haimak edo dendak ipiniko dituzte. Zenbait sahararrek emango dituzte horien gaineko azalpenak. Horrez gain, itxulapikoak ipiniko dituzte, gura dutenek Saharara bidaltzeko dirua eman dezaten.

### AURREIKUSPENAK GAINDITUTA

Euskal Herriko lehen jaialdia da etzikoa. Aurrekari bakarra izan zen iaz Lekeition egin zuten antzeko jaialdi bat, Sahararen aldeko elkarte asko batu zituena; hango arrakasta ikusita, aurten apropos nazio mailako jaialdia egitea erabaki zuten. Nubi elkartea oso pozik dago jendearen erantzunarekin: "Elkarte askok lagundu digute eta Euskal Herri osotik etorriko da jendea: Donostiatik, Getxotik, Sopelatik, Berriztik... hori, guk dakigula. Ez genuen halako erantzuna espero: bazkarirako, 300 bat lagunera iristen baginen, pozik geunden; orain, 400 lagunetik gora ere izango gara".

Aurrerantzean antolatzen jarraitu gura dute elkartasun jaialdia Euskal Herrian Sahararekin elkartasunean diharduten elkarteek; hala, datorren urtean Araban egingo dute.

## Eskubide bortxaketa salatuko dute

**Nubi elkartearen esanetan, Saharak ezin dezake luzaroago itxaron: *Sahara Orain* da jaialdiaren izena, eta horixe, alegia, berehalako laguntza, da eskatzen dutena. Etziko jaialdiaren zati bat aldarrikapen horrendako izango da, eta hori eguerdiko ekitaldi baten egingo dute.**

**Eguerdiko hamabitan, Arrasateko San Isidro elkartean (Gipuzkoa etorbidea 51) prentsaurrekoa egingo dute honako lagunek: Euskadiko Sahararen aldeko elkarteen ordezkariek; Brahim Galik, Estatuan Fronte Polisarioko ordezkariak; Aicha Chafik, Saharako okupatutako lurraldeetako emakumeen testigantza emango duenak; Mohamed El Mamun-ek, Euskadin Fronte Polisarioko ordezkariak; Txomin Aurrekoetxeak, Saharar Herriarenganako Elkartasun Erakundeen koordinatzaileak; eta Ignacio Lakuntzak, Arrasateko alkateak. Ekitaldi politikoa Gorka Knörr kantautoreak itxiko du.**

**Fronte Polisarioaren eskaera da Marokok okupatutako mendebaldeko Saharako lurraldeen autodeterminazioa. Saharar asko lurralde horretako basamortuan bizi dira, Tindufeko kanpalekuetan, bizi-baldintza larrietan: udan 50 gradutik gora dago; populazioaren %85ek artzaintzan egiten du lan...**

## Aurten, 18 ume gurean

**Saharako kanpalekuetan, osasun egoera eskasean bizi diren ume askok udako oporrak gure artean pasatzeko aukera dute Oporrak Bakean programarekin. Horren barne, aurten 18 ume etorri dira Debagoienera, batzuk joan den zapatuan eta besteak astelehenean. Horietatik 12 Arrasaten daude, hiru Bergaran, bi Oñatin eta bat Antzuolan. Umea hartzekoa zen familia batek ezin izan zuen, baina berehala agertu zen ordezko bat. Urtero bezala, ongietorri ekitaldi ofiziala egin diete udalek umeei: atzo, eguena, arratsaldean egin zuten ekitaldi hori Arrasateko udaletxean. Udalek opariak banatu zizkieten etorri diren umeei, eta gero denek batera meriendatzekoak ziren.**

**Saharako ume horiek euren herrian ez dituzten bizibaldintzetan pasatuko dituzte oporrak, irail hasiera arte.**

Autos Ribelogan, mota guztietako autoen salmenta eta konponketa.

BMW eta CITROËN autoetan espezializatuta gaude.

Bigarren eskuko autoak ere saltzen ditugu.









**AUTOS RIBELOGA**
ZABALDU BERRIA

Aretxabaleta eta Eskoriatza artean,
Eskoriatzako industrialdean

Torrebaso pasealekua 16B
20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 00 95
Faxa: 943 71 00 97
www.autos-ribeloga.com

Zure autoa garbitzeko tunela ere badugu

Ur presio altua ere erabiltzen dugu

**Edozein premiatarako:**
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

# Uztailak 15–22

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## OSPAKIZUNAK

### ARAMAIO

► **Arexola eta Arriolakoek** Santa Marina jaiak ospatuko dituzte. Gaur, egubakoitza, afaria izango da (21:30); bihar, zapatua, meza (12:00), txirrindulari lasterketa segidan, plater-tiroa (16:30), kalejira (17:30), kanpai-jotze erakusketa (19:30) eta dantzaldia; eta etzi, domeka, meza (12:00) eta vermouth dantza segidan; arratsaldean, umeendako jolasak.

### ARRASATE

► **Santa Marina auzoan** honako ospakizunak egingo dituzte: gaur, egubakoitza, kilikiak (19:30) eta diskoteka mugikorra (23:00); bihar, zapatua, futbol txapelketa goizean; Gorriti eta bere animaliak (11:30); aizkolari txapelketa (12:00) eta erretiratuen omenezko meza eta bazkaria (13:00); etzi, domeka, paella lehiaketa (12:00), dardo txapelketa (16:30), umeendako parkea (17:00)…

### BERGARA

► **Santa Marinako jaiak** ospatzen jarraituko dute egunotan. Gaur, egubakoitza, karta-joko txapelketak (10:30), kukaina (18:30) eta boccia txapelketa (19:30) egingo dituzte; bihar, zapatua, futbol partidua (11:00), txirrindularitza txapelketa (16:00) eta disko festa (21:00); etzi, domeka, txistulariak (09:00), udal banda (10:30), meza (11:30) eta musika bandaren kontzertua (12:30); eta astelehenean, hilak 18, meza nagusia udal korporazioarekin (19:00), eta Aritzeta abesbatzaren emanaldia.

### OÑATI

► **Trianako jaiak** ospatuko dituzte asteburu osoan. Gaur, egubakoitza, Astotrastori ongietorria (19:00), txistulari, erraldoi eta txorimaloak (19:30) eta erromeria (23:00) izango dira; bihar, zapatua, umeendako lehiaketak (11:30), poteoa (13:30), mus txapelketa (16:00), arku-tiro erakustaldia (17:30), sukaldaritza ikastaroa (21:30) eta dantzaldia (23:00); eta etzi, domeka, meza, Madalenako auzotarrei harrera (12:30), bertsolariak eta pintxo-jana (13:00), bazkaria (15:00), antzerkia (20:00) eta zozketa.

## IKUSKIZUNAK

### ARAMAIO

► **Ballet ikuskizuna** egingo du Gasteizko Jose Uruñuela dantza kontserbatorioko taldeak gaur, egubakoitza, kultura etxean, 20:00etan.

### ARRASATE

► **San Luis Potosiko dantza folkloriko taldeak** emanaldia egingo du bihar, zapatua, Monterron parkean, 22:30ean. Sarrera doan da.

► **Lore Gazteak** dantza taldeak ikasturte amaierako emanaldia egingo du eguenean, hilak 21, Monterron parkean, 22:00etan.

### OÑATI

► **San Luis Potosi (Mexiko)** hiriko ballet folklorikoak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Sarrera doan da. San Luis Potosik eta Oñatik duten adiskidetasun harremanaren barne antolatu dute emanaldi hori.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Antzuolako Kirol Elkarteak** batzar orokorra egingo du hilaren 21ean, eguena, udaletxean, 19:30ean.

### ARRASATE

► **Txatxilipurdi elkarteak** gaztetxoendako ekintzak antolatu ditu: hilaren 20an, eguaztena, zinema eta afari-merienda, Pablo Urangako egoitzan, 19:30ean; eta hilaren 20tik 27ra bitartean, Bartzelonako gazteekin elkartrukearen barne, egunero ekintzak: ginkana, irteerak, tailerrak… Izena emateko, deitu 943 79 54 46 edo 943 77 17 39 telefonoetara.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Honako Internet ikastaroak** emango dituzte egunotan KZGunean: hilaren 18tik 22ra, NagusiWeb; 18an, astelehena, postala bidaltzeko ikastaroa; eta 22an, egubakoitza, ardoaren gainekoa.

### OÑATI

► **Internet ikastaroak** izango dira KZGunean: gaur, egubakoitza, posta elektronikoaren gainekoa (16:00); hilaren 18an, astelehena, Internet oinarrizko ikastaroa (09:00 edo 14:00); 19an, martitzena, bat-bateko mezularitzarena (16:00); eta 21ean, eguena, egunkaria irakurtzearena (16:00).

## ERAKUSKETAK

### ARETXABALETA

► **Herriko margolari gaztetxoek** erakusketa dute udaletxe zaharrean, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 18:00-20:00, eta zapatutan, 12:00-14:00.

### ARRASATE

► **Jose Ramon Elortza** margolari elgoibartarraren erakusketa dago Arregi markoztatze dendan, Maala kalean, uztail osoan.

### BERGARA

► **Eduardo Arrillaga** argazkilariaren lanak daude Aroztegi aretoan. Hilaren 24ra bitartean izango da erakusketa ikusteko modua. *Sokamuturra* du izenburua bilduma horrek, eta zuri-beltzeko 34 argazkik osatzen dute. Bisita ordutegia hau da: astegunetan eta domekatan, 18:30-20:30; eta zapatutan, 12:00-14:00 eta 18:30-20:30. Egitarauaren barne, Iñaki Azkunek *Sokamuturra* hitzaldia egingo du hilaren 15ean, egubakoitza, 20:00etan.



► JAIAK

## MAIRUAREN ALARDEA ETA ASKOZ GEHIAGO, ANTZUOLAKO JAIETAN

Antzuolako jaietaz gozatzeko aukera izango da asteburu osoan. Ekitaldi nagusia izango da Mairuaren Alardea, bihar, zapatua, 18:00etan, baina beste ekintza asko izango dira aukeran bertako zein kanpoko jai-zaleendako. Hala, gaur, egubakoitza, umeendako jolasak, meza nagusia, bertso saioa, mariatxia eta DJak… izango dira; bihar, zapatua, Alardeaz gain, herriko txistulari eta bandaren kalejirak, umeendako tailerrak, dantza saioak, presoen aldeko ekitaldia, dantzaldia, herri-afaria, txosnako kontzertuak eta suzko zezena; eta etzi, domeka, herri kirolak, pilota partiduak, kale antzerkia, barra librea txosna gunean eta azken dantzaldia eta jai bukaera ekitaldia.

**Non:** Antzuolan. **Noiz:** gaur, egubakoitza, hasi eta etzira, domekara, bitartean.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA | ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA | FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES



graduatu-ondoko ikasketak 2005–2006
masterrak
• Enpresen zuzendaritzako masterra – MBA
- Zuzendaritza Orokorra
- Finantza Zuzendaritza
- Marketing Zuzendaritza
- Garraio eta Hornikuntza Katearen Kudeaketa
- Kooperatigintza
- Berrikuntza eta Ekintzailetasuna
- Kirol Entitateen kudeaketa eta zuzendaritza
• Bankan eta burtsan masterra (birtuala) – MBB
• ERP enpresa informazio sistemen masterra – MSI
doktoretza
- Programa: Enpresen Zuzendaritza
informazioa
Enpresa Zientzien Fakultatea
Oñatiko Campusa
Larraña kalea, 16
20560 Oñati
Tel.: 943 71 80 09
postgrado@eteo.mondragon.edu
www.eteo.mondragon.edu
Bidasoako Campusa
Ducourau Jauregia, Hendaia kalea, 8
20301 Irun
Tel.: 943 63 91 29
www.mondragon.edu
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

## ESKORIATZA

► **Jokin Rodríguez** arrasatearrak *Kartoiak* izeneko erakusketa du hil osoan Espaloian. Kartoizko eta beste material birziklatuzko oinarrietan egindako margolanak dira.

## OÑATI

► ***Oñati - irudiak*** argazki erakusketa dago kultura etxean. Argazki horiek osatzen duten liburua hilaren 19an aurkeztuko dute kultura etxeko ekitaldi aretoan, 19:00etan, Arrasate Argitan taldekoek eta udalak.

# LEHIAKETAK

## ARRASATE

► **Gomendatzen dizut…** lehiaketa deitu du Gazte Zerbitzuak. Helburua da oporretarako gomendioak egitea. Bete beharreko fitxa aurkituko duzue helbide honetan: *www.arrasate-mondragon.org/Udala /Txostenak/Gomendatzendizut05B*. Landetxe baten asteburu bateko egonaldia zozketatuko dute. Mugaeguna da urriaren 26a.

# MUSIKA

## ARRASATE

► **3.60 aretoak** honako kontzertuak antolatu ditu: gaur, egubakoitza, Jim T.N.T. eta Azkaiter Pelox bakarlariak, 23:00etan; eta bihar, zapatua, Bullanga funk taldea, 23:00etan, eta segidan, Alain & Gorka disko jartzaileak.
► **Morau ta Agotak** taldearen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Ferrerias kaleko plazatxoan, 23:00etan, Kultur Errotaren eskutik. Batez ere, *Txukalda* diskoko abestiak joko dituzte.

## BERGARA

► **Tres Hombres** soul, blues eta funky estiloko taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:30ean.
► **Esan (Bergara), Rotten Teenagers (Bergara) eta Never Surrender (Arrasate)** taldeen punk, hardcore eta oi musika emanaldia izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

## OÑATI

► **Roboto (Bartzelona) eta Boogie Van (Donostia)** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean.

# Zinema

## ARETXABALETA

■ **HERRIKO PLAZA**

***Los chicos del coro***
Egubakoitza: 22:30.

***Unibertsolariak munduaren ertzaren bila***
Martitzena: 22:30.

## ARRASATE

■ **MONTERRON**

***Be cool***
Egubakoitza: 22:30.

## ELGETA

■ **ESPALOIA**

***Omagh***
Eguaztena: 21:30.

## ESKORIATZA

■ **HERRIKO PLAZA**

***Los increíbles***
Egubakoitza: 22:15.

***Los chicos del coro***
Astelehena: 22:15.

***El diario de Bridget Jones. Sobreviviré***
Eguaztena: 22:15.

## OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

***Kung-fu-sión***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

## EIBAR

■ **UNZAGA**

***Los 4 fantásticos***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

***El calentito***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna.

## GASTEIZ

■ **GURIDI**

***La guerra de los mundos***
17:30, 20:00, 22:30.

***Valiant***
17:00, 18:45.

***Daltondarrak Lucky Lukeren aurka***
17:00.

***La memoria del asesino***
17:30, 20:00, 22:30.

***Madagascar***
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

***Batman begins***
19:00, 22:00.

***El hombre de la casa***
20:30, 22:30.

***Fin de curso***
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

***Los 4 fantásticos***
17:30, 20:00, 22:30.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***A good woman***
18:00, 20:15, 22:30.

***El amor es lo que tiene***
18:00, 20:15, 22:30.

***El viento***
18:00, 20:15, 22:30.

***Héroe a rayas***
18:00.

***Fugitivos***
20:15, 22:30.

***Tapas***
20:15, 22:30.

***La piel vendida***
18:00, 20:15, 22:30.

***Génesis***
18:00.

***Maroa***
18:00, 20:15, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

***Los 4 fantásticos***
16:00, 18:00, 20:10, 22:30, 00:45.

***La guerra de los mundos***
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

***El reino de los cielos***
23:00.

***Madagascar***
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

***Héroe a rayas***
16:00, 18:00, 20:00.

***Star wars, episodio 3***
16:00, 19:00.

***Love me tender***
16:00, 18:00, 20:00.

***Danny the dog***
22:00, 00:30.

***Million dollar baby***
23:00.

***La casa de cera***
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

***Los Dalton contra Lucky Luke***
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

***Batman begins***
16:00, 19:00, 23:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

***La casa de cera***
12:15, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

***La guerra de los mundos***
12:15, 15:30, 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.

***El sueño de una noche de San Juan***
12:15, 16:00, 17:40.

***Madagascar***
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

***La intérprete***
19:40, 22:10, 00:40.

***El reino de los cielos***
12:15, 17:15.

***Valiant***
12:15, 16:45, 18:30, 20:15, 22:00, 00:00.

***Los Dalton contra Lucky Luke***
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

***El amor es lo que tiene***
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

***Batman begins***
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

***Héroe a rayas***
12:15, 16:40, 18:40.

***El calentito***
12:15, 16:00, 17:50.

***Danny the dog***
20:05, 22:05, 00:05.

***Star wars, episodio 3***
19:20, 22:00, 00:35.

***El internado***
20:40, 22:40, 00:40.

***Los 4 fantásticos***
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

***Fin de curso***
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

***Semen, una historia de amor***
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

***La intérprete***
22:00, 00:45.

***El sueño de una noche de San Juan***
12:20, 16:10, 18:10.

***Kung-fu-sión***
12:00, 16:00, 18:10.

***Héroe a rayas***
12:15, 16:05, 18:05.

***Los 4 fantásticos***
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

***El calentito***
20:05, 22:05, 00:30.

***Batman begins***
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

***Star wars, episodio 3***
12:00, 16:15, 19:10.

***Madagascar***
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

***No sos vos, soy yo***
20:25, 22:35, 01:00.

***Dead end***
20:00, 22:00, 00:30.

***La guerra de los mundos***
12:15, 17:00, 19:30, 22:15, 01:00.

***Valiant***
12:00, 16:30, 18:20, 20:10.

***Semen, una historia de amor***
12:20, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

***La casa de cera***
12:15, 17:15, 19:45, 22:25, 01:00.

***Fin de curso***
12:00, 16:05, 18:10, 20:15, 22:20, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

***Million dollar baby: ●●●● | La guerra de los mundos: ●●● | El reino de los cielos: ●●● | Tapas: ●●● | La intérprete: ●●● | Batman begins: ●● | Star wars, episodio 3: ●●***

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

## EL AMOR ES LO QUE TIENE

PUNTUAZIOA: ●●

**ZUZENDARIA:** Nigel Cole.
**AKTOREAK:** Ashton Kutcher, Amanda Peet.

Askotan entzun izan dugu oso gauza zaila dela komedia on bat egitea, eta azkeneko urteetan ikusitakoaren arabera esaldia egia dela ematen du. Komedia askotxo egiten dira, baina gehienak nahiko eskasak. Komedia egiteko hainbat modu aurkitzen ditugu. Batzuek, arrakasta erraza lortu nahian, umore zakarra erabiltzen dute: *American Pie*, esate baterako, edo modu zerbait originalagoan *Algo pasa con Mary*; beste batzuek komedia erromantikora jotzen dute: hauxe da El amor es lo que tiene filmaren kasua. Filmak kontatzen digu sei urte eta erdian bikote xelebre batek duen harremana. Urte horietan oso gutxitan ikusten dute elkar eta topaketak azkarrak dira: euren bikotekide ofizialekin arazo sentimentalak dituztenean, bata bestearen bila doa. Bien artean kimika dagoela igartzen da, baina, hainbat gauzarengatik, ezin dute euren harremana nahi duten bezala sendotu.

Argumentu honekin, gidoi on bat eta esku trebeko zuzendari bat edukiz gero, film ederra egiteko aukera dago, baina kasu honetan ez da halakorik gertatzen. *El amor es lo que tiene* oso komedia light da, eta motz geratzen da. Behin



eta berriz errepikatzen den formula bat erabiltzen du. Oinarritzen da bi pertsonaiaren portaera nahiko xelebrean eta haiek egiten dituzten umekerietan, eta hori guztia abesti pila batekin hornituta. Horrela, teknika horrek filmari hasieran freskotasun sentsazioa ematen dio; aktoreek itxura ona dute, ez dute gaizki egiten euren lana; abestiak eta egoeren atipikotasuna erraz onartzen dira; baina ezaugarri horiek filmaren pasarte guztietan behin eta berriz errepikatzen direnean, aurrerapausorik eman gabe, atsegingarri izatetik aspergarri izatera pasatzen da. Arrakastatsua izaten den formula erabiltzen da, dena light da eta ez zaigu ezer berririk eskaintzen; ez dago arriskurik eta bai kalkulu gehiegi.

*El amor es lo que tiene* ez dago orain egiten diren komedia txarrenen artean, baina ez du ezer berririk eskaintzen. Mota horretako filmen jarraitzaileak gustura irtengo dira zinematik; besteak, alderantziz, nahiko motel.

ANTONIO ZABALA

ZATOZ KORRIKA...SARRERAK OPARITZEN GABILTZA !
BIDALI SMS MEZU BAT 7744 -RA: ABACO _ CIUDAD HITZEKIN
www.cinesabaco.com
¡ Sarrera ugari zozketatzen ditugu !
Mezuaren kostua: 0,90€ +BEZ. Oinarriak zinemetako lahiatilan eskuragarri. Promozio balioagarria 2005/08/31-ra arte. Ez da bateragarria beste promozioekin.
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52
C.C EL BOULEVARD
C.C LAKUA
ÁBACO
ABACO, ZINEMA MAILA GORENEAN

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
• Duplexa erdialdean 180 m².
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Erdialdea 50 m². Berritzeko.
• Erdialdea 78 m². Oso ondo.
• San Pedro 110 m². Berritzeko.
• Bolu 82 m². Garajea.
• Espoloia 86 m². Oso ondo.
• San Pedro 75 m². Oso ondo.
• Duplexa Bolun 90 m².
• Koldo Eleizalde 80 m². Oso ondo.
• Bidekurutzeta 90 m². Oso ondo.
• Txaleta 300 m². Berria.
• Osintxu 87 m². Oso ondo.
• Mugertza 104 m². Terraza.
• Artekalea 30 m². Ondo.
**Antzuola:**
• Hamaika etxebizitza berri.
• 88 m². Garajea. Oso ondo.
**PABILIOIAK**
• Bergara. 600 m². Berria.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
**Zarugalde 1 Arrasate**
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
BERGARA:
• Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara.
• Erdialdea 90 m². Berrizteko.
• Erdialdea 77 m². Oso ondo.
• Bolu, duplexa 90 m². Garajea.
• Duplexa, erdialdean 116 m².
• Matxiategi 80m². Ondo.
• Martoko 60 m². Berritzeko.
• Elorregi 64 m². Berritzeko.
• Erdialdea 89 m². Berritzeko.
• Duplexa, erdialdean 170 m².
• Aranerreka 82 m². Garajea.
• San Pedro 110 m². Berritzeko.
• Txaleta 300 m². Berria.
ANTZUOLA:
• Bustinzuri 88 m². Berria.
SORALUZE:
• Ezozi 83 m². Ondo dago.
• Errekalde, duplexa 97 m². Ondo.
• Sagar-Erreka 50 m². Oso ondo.

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza salgai. Egoera onean. 607 95 79 11 edo 610 73 52 23.

**Antzuolan** etxe berria salgai. Terraza eta garajearekin. 88m2 ditu. 285.480 euro. 675 71 24 54 edo 944 37 80 27.

**Aretxabaleta.** Erdialdean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bainugela, bi terraza. Berrituta. Nahi izanez gero, garajea ere bai. 943 79 30 63 edo 656 73 12 80.

**Arrasate.** Erguin auzoan. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Bi balkoi ditu. 615 75 04 72.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai daukat Erguinen. 62 metro koadro ditu, berritua dago eta eguzkitsua da. Erdi-jantzita dago, eta bizitzera sartzeko moduan. 619 64 13 19.

**Arrasate.** Goitik behera berrituta dauden bi etxebizitza-apartamentu salgai. Erdialdean. Juan. Telefonoa: 696 73 16 88.

**Arrasate.** Zerrajerako 5. zenbakian. 680 79 77 24.

**Bergara.** 104 m2. Garajea, lorategia eta txabola ere baditu. Guztiz jantzia. Berogailuarekin. 943 76 12 86.

**Bergara.** 104m2 dituen etxea salgai. Garajea, jardina eta txabola ere baditu. Guztiz jantzita eta berogailuarekin. 646 59 56 56.

**Bergara.** Bidekurutzetan. 90 m2. Jantzita dago. Berogailua, hiru logela eta trastelekua. 227.783,59 euro. 943 76 54 07 edo 636 22 96 85.

**Bergara.** Bolun 90 metro koadroko duplexa salgai. Trastelekua eta garajea ditu. 636 34 71 40.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza salgai. Berrituta. 943 53 21 43 edo 607 15 26 62.

**Bergara.** Etxebizitza berritua, 82m2, altzariz erdi jantzia, hiru gela, igogailua. Telefonoa: 699 06 31 08.

**Bergara.** Aranerrekan etxebizitza salgai. 90 m2.

Hiru logela, 2 terraza, 6 m2-ko trastelekua. Erdi jantzita. Telefonoa: 610 78 76 89 edo 943 76 47 33.

**Bergara.** Ibargarain. 109 m2. Berria. 667 73 11 63.

**Bergara.** Irizar kaleko 2. zenbakian etxebizitza salgai. 82 m2. Hiru logela, sukaldea eta balkoia. Igogailua. 943 76 21 09 edo 650 01 01 83.

**Bergaran,** Telesforo Aranzadi kalean etxebizitza salgai. 140 m2 ditu eta erdi jantzita dago. 943 76 21 21.

**Donostia.** Alde zaharreko Fermin Calbeton kalean. 100 m2. Hirugarren solairua. Bost logela. 605 74 72 27.

**Donostia.** Etxebizitza salgai Antiguo auzoan. Bi logela, 104 m2. Deitu 21:30etik 22:30era. Telefonoa: 943 37 72 92.

**Donostia.** Intxaurrondo zaharrean; oso argitsua. 52 m2. Ez du igogailurik. 252.425 euro. Dei egin 16:00etatik 18:00etara. 676 67 45 71.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Almeria.** Etxebizitza errentan, uztaileko eta abuztuko bigarren hamabostaldietan. 649 03 47 20 edo 950 30 33 35.

**Arrasate.** Atiko bat errentan ematen da. 659 72 35 87.

**Benidorm.** Apartamentua alokatzen dut abuztuan. 945 29 33 97 edo 665 73 23 99.

**Benidorm.** Etxebizitza errentan ematen da Levanteko hondartzan. Igerilekua, garajea eta aire girotua. 666 67 06 94.

**Benidorm.** Itsasora begira. Aparkalekua du. Telefonoa: 630 41 84 65.

**Cambrils.** Itsasoari begira, igerilekua eta berdegunea. Uztaileko bigarren hamabostaldia eta iraila. 610 79 47 29.

**Conil** (Cadiz). Bateles hondartzan. Apartamentua errentan irailetik aurrera. 680 44 26 68.

**Donostia.** Abuztuan Amaran etxebizitza errentan. Dena kanpora begira. 943 71 50 87 edo 943 71 41 49.

**Donostia.** Antigua auzoan, abuztuko bigarren hamabostaldian. 2 logela, garajea. 15 egun, 900 euro. 630 08 24 17.

**Donostia.** Etxebizitza alokatzen da Gros auzoan, Zurriola hondartzaren lehen lerroan. Berriztatuta. Uztailean, 2.404 euro; abuztuan 2.404 euro; irailean, 1.803 euro. 943 29 29 84.

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan datorren ikasturterako. Konstituzio plazan. 943 78 05 24.

**Donostia.** Etxebizitza errentan ematen da ikasleentzat urritik ekainera bitartean. 943 79 18 95 edo 626 00 68 37.

**Donostia.** Etxebizitza errentan, Kursaal eta Zurriola ondoan. Abuztuko bigarren hamabostaldirako (Aste Nagusia barne). 665 73 59 83.

**Elgoibar.** Etxebizitza errentan. 615 00 83 46.

**Gandia.** Apartamentua hondartza ondoan. Urbanizazio itxian eta igerilekuarekin. 645 71 05 83.

**Haro.** Apartamentua errentan ematen da, igerilekuarekin. 659 72 35 87.

**Haro.** Atalaya auzoan, etxebizitza alokagai uztaileko bigarren hamabostaldian eta abuztuan. Hiru logela, egongela, komuna eta igerilekua dauzka. 943 86 18 28.

**Noja.** Duplexa errentan ematen dut, hondartzatik gertu-gertu, itsasoari begira eta terrazaduna. 696 90 94 43.

**Ondarretan** etxebizitza ematen dut errentan. Bi logela eta garajea ditu. Abuztuko bigarren hamabostaldian. 667 80 08 13.

**MAZARRON (MURTZIA)**
ERRENTAN EMATEN DA apartamentua luxuzko urbanizazioan. Hondartza, igerilekua, tenisa, etab. 120 m2-ko terraza. Sei lagunendako. Hamabostaldietarako.
945 13 55 30
615 74 47 01

**MOTRIL (GRANADA)**
ERRENTAN EMATEN DA Apartamentu berria luxuzko urbanizazioan. Hondartza, golfa, padela, igerilekua, tenisa, etab. Sei lagunendako.
945 13 55 30
615 74 47 01

**Oñati.** Etxebizitza errentan. 629 01 31 70.

**Peñiscola.** Apartamentua hondartzatik 50 metrora. Parkinga eta igerileku pribatua. Uztail, abuztu eta irailerako. 943 79 48 82.

**Peñiscola.** Irailean apartamentua ematen da errentan. 945 29 33 80.

**Salobreña** (Granada). Etxebizitza atxikia alokagai abuztuko lehenengo hamabostaldian. Igerilekua. Garajea. 669 70 84 19.

**Salou.** Apartamentua alokagai uztailean eta abuztuko lehen hamabostaldian. Aire girotua eta igerilekua . 943 79 70 27 edo 943 79 45 19.

**Salou.** Apartamentua errentan Jaime I pasealekuan. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

**Torrevieja.** Apartamentua. Uztailean, abuztuan eta irailean. 660 05 20 85.

**Torreviejan** apartamentua alokagai, hondartzaren ondoan. Hiru logela. Uztailean, abuztuan eta irailean. 943 79 52 94 edo 639 92 85 65.

**Veran** (Almeria)gune naturistan dagoen etxebizitza alokatzen da. Guztiz jantzita eta igerilekuarekin. 657 73 94 25.

**Villanua.** (Jaca) Apartamentua alokagai abuztuko lehen hamabostaldian. Garajea, igerilekua eta paddle pista. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

**Zarautz.** Etxebizitza emango nuke errentan. Uda, aste bukaerak, zubiak... Hondartzatik gertu. 685 71 84 54.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasaten** etxebizitza alokatu nahi dut. Ahal bada hutsik. Presazkoa da. 943 79 17 15.

**Benidorm.** Etxebizitza errentan ematen da Levanteko hondartzan. 630 41 84 65.

**BERGARA**
MAXIM'S TABERNAN ASTEBURUETARAKO ZERBITZARIA BEHAR DA.
943 76 20 61

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Ikasten dabiltzan bi neska gura ditu emakume batek elkarrekin bizitzeko. Errenta txikiagoa izango da. 943 79 79 09.

**Aretxabaleta.** Lagun baten bila gabiltza. 699 71 34 20.

**Arrasate.** Bi lagun behar dira irailetik aurrera etxebizitza osatzeko. Eskola ondoan dago. 605 72 51 38.

**Arrasate.** Logela bat alokatzen da uztailetik aurrera. Arrasate erdialdean. 943 77 16 54.

**Arrasate.** Neska euskaldun bat logela bila dabil uztail eta abuzturako. 635 73 63 78.

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan. 678 83 71 99.

**Bergara.** Neska behar da etxebizitza osatzeko. Utzi mezua. 943 76 15 74.

**Donostia.** Bi lagun behar dira etxebizitza osatzeko, urritik aurrera. Presazkoa. Telefonoa: 607 91 15 43.

**Oñatin** pertsona bat behar da etxea osatzeko. Etxea San Lorentzo auzoan dago. 610 24 01 38.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Antzuola.** Garajea salgai Ibarrondo Behean. 943 76 65 03.

**Arrasate.** Makatzenan garaje itxia salgai. 945 12 09 94.

**Oñati.** Garajea salgai Olakua 16-17-18ko lehenengo solairuan. Ate berria. Telefonoa: 653 71 78 80.

### 202. EROSI

**Arrasate.** Garajea erosiko nuke. 665 75 55 19.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Andramari auzunean, itxia. Telefonoa: 943 77 12 81.

**Arrasate.** Obenerrekan. 2 autorentzako modukoa. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 943 79 69 41.

**ARRASATE**
ZAHAR-BERRI ELKARTEAK BERE PROIEKTURAKO TEKNIKARIA BEHAR DU.
943 77 12 28

**ARRASATE**
TABERNA EMATEN DA ERRENTAN.
677 67 51 82

**Arrasate.** Roneon. Deitu 20:30etik aurrera. Telefonoa: 943 79 19 64.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Aisialdirako lokala errentan ematen dut. Deitu telefono honetara, mesedez: 943 76 55 91.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da haurrak zaindu eta etxeko-lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 676 23 41 89 edo 943 79 13 53.

**Arrasaten,** irailetik aurrera haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Orduka. 665 70 69 25.

**Bergara.** Emakumea behar da umeak zaintzeko. Irailetik aurrera. Deitu telefono honetara: 943 76 59 59.

**Eskoriatza.** Sukaldaria behar da tabernan lan egiteko. 606 86 87 74.

**Oñati.** Emakumea behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 21:00etatik aurrera. Telefonoa: 943 78 36 15.

### 402. ESKAERAK

**Debagoiena.** 26 urteko neska euskaldunak haurrak zainduko lituzke uztail goizetan. Esperientzia. Telefonoa: 656 76 65 69.

**Aretxabaleta** zein Eskoriatzan umeak zainduko nituzke udan. 21 urte ditut eta Haur Hezkuntza ikasten nabil. Maite. Deitu telefono honetara: 695 34 91 69.

**ANGIOZAR**
ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA.
943 78 22 80
665 72 24 46

**ANTZUOLA**
AITZ-GARBI TABERNA ERRENTAN EMATEN DA.
943 76 60 44

**Arrasate.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. Gauez ere lan egiteko gertu. Garbiketa lanak ere bai. Ana. 649 59 86 04.

**Arrasate.** Neska gaztea umeak zaintzeko prest. 699 57 12 68.

**Arrasate.** Umeak goizez zaintzeko prest. Telefonoa: 699 11 43 23.

**Bergara.** Etxeko lanak egin edo pertsona edadetuak zaintzeko gertu. Telefonoa: 626 11 80 26.

**Bergara.** Umeak zaintzeko gertu udan. 646 84 82 32.

**Bergara.** Uztailean eskola partikularrak eman edo umeak zainduko nituzke. 629 11 24 56.

**Debagoiena.** Administrari batek ordezkapenak edo ordu batzuk lan egingo lituzke. Administrazioko alor guztiak ezagutzen ditu. Telefonoa: 656 41 08 15.

**Mutila lan bila.** Baserriko lanak egiteko gertu. Feliciano Vaca. 657 39 99 81.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Irakaslea** behar da partikular bati eskolak emateko. Este unibertsitatean Enpresa ikasketetako lehen kurtsoan Enpresako Ekonomia ikasgaia. Beharrezkoa da ikasgaia menderatzea eta irakasleak Esteko unibertsitatean ikasketak eginak izatea. 661 25 89 60.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Laguntza eskolak emango nituzke udan. 645 73 04 69.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Chrysler** Voyager. Estra askorekin. 607 22 82 01.

**Chrysler** Voyager salgai. Estrak. 607 22 82 01.

**Gas Gas** FSE 400 motorra. 2002koa. 686 92 55 71.

**Golf GTI** autoa salgai. SS-AF. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

**Honda** CBR 600 F motorra salgai. 2004koa. 8 mila euro. 607 92 22 58.

**Honda** XR 400. 1999koa. 8.000 km. Gutxi erabilia. 3.900 euro. 627 57 32 77.

**Montesa** Cota 349 mendiko motorra salgai. Berritua. 1.200 euro. 679 73 63 29.

**Nissan** Patrol. 6 zilindrokoa. 650 00 86 58.

**Opel** Kadett GSI. 130 ZP. Ondo dago. Merke. 656 73 54 80.

**Opel** Vectra DTI autoa salgai. SS-AZ. Beti garajean. 3.500 euro. 677 98 59 24.

**Peugeot** 205 Diesel autoa. 1992koa. 686 92 55 71.

**Renault** Clio 1.7 autoa salgai. 90 ZP. 92. urtekoa. IAT pasa berria. 1.200 euro. 635 74 27 43.

**Kymco** Dink 150 cm3 LX scooterra ez erabiltzeagatik salgai. 4.000 km. 1.300 euro. Deitu arratsaldez edo gauez, mesedez. 653 01 96 33.

**Suzuki Vitara.** 1.9 TD, 99. urtekoa. Bola homologatua. IAT pasata. 85.000 kilometro 7.800 euro. Egoera onean. 627 57 32 77.

**Toyota** Avensis 2000 autoa. Turbodiesel, aire girotua, lehiatila-igoera elektronikoa. 652 75 79 71.

**Volkswagen** California, 1992koa, diesela. Oso ondo dago. 656 76 87 93.

**Volkswagen** California. 2,4D. 1992koa. Prezio ona. 656 76 87 93.

**Volkswagen** Golf GTI III autoa salgai. Hiru ate. Zuria. Xabier. 943 76 71 77 edo 647 51 52 54.

**Volkswagen** Polo 1.9D autoa salgai. 1998koa. Oso ondo dago. Hiru ate. 4.500 euro. 679 73 63 29.

**Yamaha** WR 250F 4T motorra salgai. BRR matrikula. Ondo dago. Jabi. 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

**Yamaha** WR 350 F. 2002koa. Matrikula: 3519 BRR. Oso egoera ona. Jabi. 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

**Yamaha** WR-450 motorra. Matrikulatuta, gutxi erabilita. 659 77 21 50.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Artzain** txakurkumea salgai. 680 55 17 65.

**Ehizarako spaniela** saldukonuke. 3 hilabete, txertoak jasota. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

**Setter txakurkumeak.** Hiru koloretakoak. Gurasoak, oilagorretan ibiliak. Maiatzaren 19an jaioak. 678 43 31 07.

### 703. EMAN

**Artzain** txakur arrazako txakurkumea oparitzen dut. 943 76 35 58.

**Spaniel** arrazako txakurra oparitzen dut. 6 urte ditu. 607 40 30 19.

### 704. BESTELAKOAK

**Katua** galdu da. Gris koloreko marraduna da eta lepokoa du. Lapurdi kale inguruan galdu da, martitzenean. Ikusiz gero, mesedez, deitu. 943 79 86 26.

**Katua** zaintzeko pertsona behar da abuztuko lehen hamabostaldian. Egunean ordubete. 637 91 33 81.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Arbi** hazia salgai. 943 76 33 78.

**Bergara.** Hesolak (estakak) saltzen dira. Bakoitza 2 eurotan. 605 72 17 30.

**Bizikleta.** Errepidekoa. Orbea. Euskaltel. Shimano 105. 628 26 65 93.

**Canon** EOS 300 argazki kamera salgai. Objektiboak 28-90 eta 75-300 milimetrokoak. 676 61 67 70.

**Karro-denda** salgai. 3,17 metroko luzera dauka eta 1,10 metroko altuera. Lau udatan erabilitakoa, eta beti garajean gorde izandakoa. Felix. 645 70 59 13.

**Emaztegaiaren soinekoa.** 42-44 neurria. 480 euro. 943 08 00 81 edo 615 72 64 30.

**Fotokopiagailua** salgai. Canon etxekoa, Personal Copier FC 120 markakoa. 943 77 03 77.

**Karro-denda** salgai. Sango marka. 1,50 m. Bi ohe. Oso merke. 943 79 63 67.

**Karro-denda** salgai. Lau lagunendako. Jangela eta bi logela. Ondo zaindua dago. 800 euro. 943 76 54 98.

**Kutxa** salgai auto gainean eramateko. Fevvert markakoa. 943 79 63 67.

**Lasterketako bizikleta** salgai. Vitus 979 aluminiozko koadroa. 56 neurrikoa. 200 euro. 660 40 64 75.

**Olympus** III 115Kit argazkikamera eta Vodafone Live telefonoa salgai. Urtebete besterik ez daukate. 627 62 53 30 edo 943 79 40 44.

**Play Station 2** eta 40 joko salgai. 215 euro. Telefonoa: 943 79 72 53.

### 803. EMAN

**Belarra** oparitzen da. 943 76 33 78.

### 806. GALDU

**Arrasate.** Kamera digitalaren bateria galdu zitzaidan uztailaren 3an igerilekuen eta Musakola artean. Topatu baduzu, deitu, mesedez. 943 76 33 98.

**Arrasate.** Uztailaren 9an, zapatua, 12:00ak aldera, betaurrekoak galdu nituen, Dian. Urre koloreko armazoia. Kutxatila granatea. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez. 943 77 16 66.

**Bergara.** Larruzko diruzorroa galdu nuen zapatuan Bolu inguruan. Mesedez, eraman Udaltzaingora.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Mutil** batekin harremanak izan gura ditut. Xabi dut izena. Antzeko asmoak badituzu idatzi: 91 posta-kutxa, 20560 Oñati.

### 903. DEIAK

**Bidaian joateko laguntzailea** behar dut datorren urterako. 20-25 urtekoa, euskalduna, emakumezkoa ahal bada. Hotelean egonaldia ordainduta. Postaz erantzun gura baduzu, helbidea da Berezao 44, 20560 Oñati. Aitor. 677 22 82 77.



**Iñaki Alberdi** bergararra eta **Axun Muxika** antzuolarra 1980ko uztailaren 10ean ezkondu ziren Uzarragan. Bihar, zapatua, ospatuko dute senideekin. Familiakoen partetik, zorionak!



**Jose** eta **Idoia** arrasatearrak ekainaren 4an ezkondu ziren eta Mexikora joan ziren eztei bidaian. Handik bueltan, ezkontzara joan ziren lagun guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete, eta argazki polit hau ekarri dute.



**Palmira** eta **Angel David** bihar ezkonduko dira Aretxabaletako elizan. Familiakoek muxu asko bidali eta zorionik beroenak opa dizkiete! Eurek behintzat gorputzak eutsi bitartean ospatuko dute ezkonberrien jaia.

## HILDAKOAK

**Angeles Fernandez de Maruri Zaballa.** Arrasaten, 7an. 65 urte..
**Jose Luis Kortabarria Zurutuza.** Oñatin, uztailaren 7an. 69 urte.
**Ramiro Lopez Baez.** Bergaran, uztailaren 8an. 83 urte.
**Esteban Uranga Bergaretxe.** Arrasaten, uztailaren 9an. 71 urte.
**Rosario Calleja Galdos.** Arrasaten,uztailaren 9an. 36 urte.
**Margarita Urtzelai Alberdi.** Bergaran, uztailaren 11n. 87 urte.
**Francisco Martin Alonso.** Arrasaten, uztailaren 12an. 74 urte.
**Jose Lage Gonzalez.** Arrasaten,uztailaren 12an. 78 urte.
**Victor Anduaga Guridi.** Oñatin, uztailaren 13an. 85 urte.

URTEURRENA

## Daniel Arantzeta Zabala

Aita karmeldarra

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 17an, 12:00etan, Elgetako parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Esteban Olaortua Arizmendiarrieta

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 17an, 12:00etan, Elgetako parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jose Mendibil Maiztegi

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 17an, 09:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

—

*Ez niri agur esan, gero arte baizik.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Teodora Bolinaga Uriarte

Fermin Larrañagaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 17an, 09:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Pedro Gallastegi Gabilondo

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 17an, 09:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Klara Muruamendiaraz Alberdi

Victoriano Arriaranen alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 17an, 09:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Raimundo Azkarate Elexpuru

Arane Goikoa baserrikoa

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 17an, 09:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

## Rosi Calleja Galdos

Arrasaten hil zen 2005eko uztailaren 9an, 36 urte zituela.

*Zure lagunek ez zaituzte ahaztuko.*



Ikastolako lagunak.
Arrasaten, 2005eko uztailaren 15ean.

ESKER ONA

## Ramiro Lopez Baez

Arrasaten hil zen 2005eko uztailaren 7an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko uztailaren 15ean.

ESKER ONA

## Victoriano Isasisasmendi Elortza

Aretxabaletan hil zen 2004ko uztailaren 11n.

Urteurreneko elizkizunetara joandakoei, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2005eko uztailaren 15ean.

ESKELA

## Rosi Calleja Galdos

Arrasaten hil zen, istripuan, 2005eko uztailaren 9an, 36 urte zituela.

*Udako goxotasunean baina
zu itzaltzearen ulertezina,
horren gazte galtzearen mina
ezin kendurik samina.
Hutsunearen gordina
une latzaren ezina,
jarraitu behar aintzina
jarraitu bizi ahalegina.*



Arizmendi Santa Teresako andereñoak.
Arrasaten, 2005eko uztailaren 15ean.

**GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA**
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
*Boni Laskurain 3 BERGARA*
**943 76 35 71**

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA




Laserraren bidez, hainbat arazo konpon daiteke.

# Laser bidezko tratamenduak

**Aurpegian eta lepoan zain gorri asko ditut, eta kendu egin nahiko nituzke, baina ez dakit zer egin behar dudan. Lagun batek esan zidan berari laser bidez kendu zizkiotela, baina gero hilabetez etxean egon behar izan zuela. Horren gogorra ez den beste tratamendurik badago?**

Laser bidezko tratamendua aspaldikoa da eta oso gogorra, gainera; gaur egun ez da erabiltzen. Zuk daukazuna ondorengoa dela uste dut: kapilarrak (arteriolen bukaerak dira) diametro txikiko hodiak dira, hodi kapilarrak ile baten diametroaren baino txikiagoak dira, eta horiek arduratzen dira zelulak oxigenoz eta elikagaiez hornitzeaz.

Zure galderarekin jarraituko dugu: kouperosia desagerrarazteko badaude beste sistema batzuk horren erasokorrak ez direnak. Orain ditugun laserrak seguruak eta eraginkorrak dira, asko jota azala gorritu egiten dute edo puska bat handitu, baina makillajearekin erraz tapatzen da. Dena dela, kasu bakoitza aztertu behar da; nik aurretik esan dudan moduan, normalean kapilarrak ile baten diametrokoak izaten dira, baina posible da baita ere diametro handiagoko arteriola izatea, eta honek tratamendua zaildu egiten du. Dena dela, hori oso leku konkretuan izango litzateke. Ez legoke arazorik egon behar.

Gizonezkoei bizarra kentzen diezue? Gerrian eta sorbaldan ditudan ile luzeak ere kendu nahi nituzke. Zenbat denbora behar dut? Eta zenbat balio du?

Kentzearren gorputzeko edozein ile ken daiteke. Batzuk beste batzuk baino hobeto desagertzen dira. Dena dela, nik ez dizut aholkatzen aurpegiko ile guztia kentzea, behin kentzen duzuna ez baita berriro haziko. Nire gomendioa ondorengoa da: lehenengo begi azpian eta lepoan dituzun ileak kentzea eta gero, nahi baduzu, gerriko eta sorbaldakoak, horiek azkar desagertzen dira eta. Bi urte beharko dira ile guztiak desagertzeko, normalean bi, hiru edo lau hilabeteko tarteekin. Prezioari dagokionez ezin dizut aurrekonturik egin ez badut zure gorputza ezagutzen.

DATORREN ASTEKO GAIA
Buruko ilea jausi egiten zait; aurpegian eta zilborrean, berriz, irten egiten zait ilea. Amaia.
Ilea berriro landa daiteke?



**Maria Isabel Hurtado**
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

## HITZGEZIDUNAK

Luma




## BILABILA7





## UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



**BIGARREN ZATIRIK...**

Hondamendi nuklearrak lur osoa suntsitu du. Ez da gehiago gizakirik lurraren gainean.

Ia bizi arrastorik ere ez da geratzen munduan. Han-hemenka, garai batean pertsonarik bizi ez zen lekuetan, animalia edo landare batzuk besterik ez da ikusten. Leku horietako bat behiala Afrikako oihana zegoen lekua da eta zehazki ia basamortu huts bilakatu den Boli Kosta.

Halako batean, bertako oihanean, bi tximuk topo egin dute elkarrekin. Bata arra da eta bestea emea. Orduan emeak:

- Eta? Zer egin behar dugu? Berriro hasi edo egoera dagoen-dagoenean utzi?

**ALIMALEKO ANIMALIA**

Morroi honek demetarako prestatutako pare bat ahari pasa nahi ditu bestaldera, bertan ahari talkaren erakusketa batzuk egiteko.

Mugazainak, ordea, animalia ikusi eta autoa gerarazi egin du:

- Zer dira horiek?
- Nire txakurrak!
- Handiak benetan zure txakurrak...
- Bai, taila berezietako denda batean erosi nituen.
- Eta adarrak? —galdetu dio mugazainak, irregulartasunen bat aurkitu duen poliziaren kadentziaz—.
- Barkatu, baina eskertuko nizuke nire txakurren bizitza pribatuan sartuko ez bazina!

## SOLUZIOAK





ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen

# txokoa

**Uztailaren 18a: 052 zozketa**

# Sariak astero!

Astelehenean, uztailak 18, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!**

## Uztailaren 18ko sariak




- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- **ISTILU** etxeko kamiseta bat.



**TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!**
Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: VIAJES IBERIA

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

**Kuota:**

**Harpidetza kuota, 35 euro**
**2005 osoko** harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

051 zozketa
**saridunak**

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
**Zure izena zerrendan badago,**
**ZORIONAK!**

**Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).**

- M. Pilar Igartua Arrue (Oñati)
- Eneida Egurza Mayoral (Aretxabaleta)

**ISTILU etxeko hiru euskal txapel.**

- Juan Arriaran Aranburu (Arrasate)
- Arantza Bengoa Guruzeta (Aretxabaleta)
- Esther Gardoki Errasti (Aramaio)



## 'Pilota'

ASTEBURUA / ***ikus beheko taula**

### Gure ibarreko bost bikote Debarroko pilota finaletan

Debarroko pilota txapelketako finaletarako sailkatutako sei bikoteetatik bost Debagoienekoak izan ziren. Finalak Itziarko Zabalsoro pilotalekuan jokatu ziren. Bertan gertatutako guztia GOITBn ikusteko aukera izango duzue.



## 'Harmailatik'

ASTELEHENA, 18 / **21:00 eta 22:30**

### Pirinioetako giroaren berri, hara joaterik ez dutenendako

Asteburuan izango dira Tourrean Pirinioetako etapak. Euskal txirrindulariak saiatuko dira euren zaleen aurrean maila ona ematen. Goiena Telebista ibarreko lagunekin joango da Tourrera, eta saioa eskainiko dizue hartutako irudiekin.



## 'Jaiak 2005'

MARTITZENA, 19 / **21:30 eta 23:00**

### Antzuolako jaietako giroaz gozatzeko aukera bikaina

Antzuolako jaiak pil-pilean daude. Aurten ere GOITBk ez dio hutsik egingo Mairuaren Alardeari, ez eta gainerako ekitaldiei ere. *Jaiak 2005* saio berezian jasoko dute Antzuolako jaietan izandako girorik onena.



## 'Marrazki bizidunak'

***ikus beheko taula**

### Lazkao Txiki bertsolariaren abenturak gaztetxoenendako

Astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan Lazkao Txikiren istorioak jarrai ditzakezue Goiena Telebistan. 14:05ean duzue aurreneko emanaldia. Hori galduz gero, baina, bigarren aukera 20:50ean izango duzue.

## TELEBERRIAK

### EITBko hedabideak erabiltzen dituzte egunero 1.503.000 lagunek

Hedabideen audientziak neurtzen dituen EGM erakundeak azken datuak eman ditu aditzera.  Horien arabera, urteko bigarren neurketarik onena izan da EITBko irratientzat, eta telebista kateek joan den urteko datuak gainditu dituzte. Hain justu ere, 1.503.000 ikus-entzule baino gehiago dituzte egunero ETBko bi kateek, Euskadi Irratiak, Radio Euskadik, Radio Vitoriak, Euskadi Gazteak eta EITB Irratiak. EITBko irratien artean, Radio Euskadik du jarraitzaile gehien astelehenetik barikura: 277.000 lagun. Radio Vitoriak, berriz, 33.000 entzule ditu egunero, iazko bikoitza. Euskadi Irratiak bere emaitzarik onena lortu du: 71.000 entzule; Euskadi Gazteari dagokionez, 52.000 jarraitzaile ditu. Bestalde, Euskal Telebistako bi kateek 2004. urtean lortutako datuak hobetu egin dituzte, 1.064.000 ikus-entzulerekin. ETB2k 837.000 lagunekin eta ETB1ek, 227.000 lagunekin.

### Doako 21 telebista kate ikusi ahal izango dira Gabonetarako

Gabonetarako 21 telebista kate digital ikusi ahal izango ditugu, Espainiako gobernua telebista operadoreekin akordioa eginda. Lur Telebista Digitalarekin, TVEk bost kate izango ditu, Sogecablek, Antena 3k eta Tele5ek launa, eta beste hiru telebista kate berrik ere izango dituzte.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Uztailaren 15etik 21era

Goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 15 | ZAPATUA 16 | DOMEKA 17 | ASTELEHENA 18 | MARTITZENA 19 | EGUAZTENA 20 | EGUENA 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Jaiak 2005:** Klonk, Trio Chamuyo eta Elliot Murphy<br>15:00 **Pilota:** Debarroko txapelketa<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:40 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki<br>21:00 **Eguzki lore:** Protestantismoa<br>21:30 **Ilunpean**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Eguzki lore**<br>23:00 **Ilunpean**<br>23:30 **Emisio amaiera** | 11:05 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki<br>13:00 **Ilunpean**<br>13:30 **Harmailatik:** 4X4 proba<br>14:00 **Pilota:** Debarroko txapelketa<br>14:30 **Debarri**<br>15:30 **Jaiak 2005:** Klonk, Trio Chamuyo eta Elliot Murphy<br>16:00 **Marrazki bizidunak:** Ipar haizearen erronka<br>17:00 **Jaun ta jabe**<br>18:00 **Klip@**<br>18:15 **Jaiak 2005**<br>18:45 **Harmailatik:** 4X4 proba<br>19:15 **Marrazki bizidunak**<br>20:45 **Chiloé**<br>21:15 **Klip@**<br>21:30 **Eguzki lore**<br>22:00 **Debarri**<br>23:00 **Emisio amaiera** | 11:05 **Marrazki bizidunak:** Ipar haizearen erronka<br>12:00 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa eta Lazkao Txiki<br>13:30 **Chiloé**<br>14:00 **Jaiak 2005**<br>14:30 **Eguzki lore**<br>15:00 **Marrazki bizidunak:** Ipar haizearen erronka<br>16:00 **Harmailatik:** 4X4 proba<br>16:30 **Marrazki bizidunak**<br>18:00 **Klip@**<br>18:15 **Ilunpean**<br>18:45 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa<br>19:45 **Jaun ta jabe**<br>20:15 **Harmailatik**<br>20:45 **Pilota**<br>21:15 **Jaiak 2005**<br>21:45 **Ilunpean**<br>22:15 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Ilunpean**<br>15:00 **Eguzki lore**<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:40 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki<br>21:00 **Harmailatik:** Tourra<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik:** Tourra<br>23:30 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Harmailatik:** Tourra<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:40 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak** Iratxo Magikoa<br>21:00 **Pilota:** Debarroko txapelketa<br>21:30 **Jaiak 2005:** Antzuolako jaiak<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik:** 4X4 proba<br>23:00 **Jaiak 2005:** Antzuolako jaiak<br>23:30 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Jaiak 2005:** Antzuolako jaiak<br>15:00 **Harmailatik:** Tourra<br>16:00 **Berriak Aurrerapena**<br>16:15 **Klip@**<br>19:40 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki<br>21:00 **Jaun ta jabe**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Jaun ta jabe**<br>23:30 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Jaun ta jabe**<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:40 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa<br>21:00 **Jaiak 2005:** Antzuolako jaiak<br>21:30 **Chiloé:** Finlandia, Artiko ezkutukoa<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Jaiak 2005:** Antzuolako jaiak<br>23:00 **Chiloé:** Finlandia, Artiko ezkutukoa<br>23:30 **Emisio amaiera** |
| 15:00 **Pilota** | 16:00 **Marrazki bizidunak** | 16:00 **4X4 proba** | 21:00 **Tourra** | 21:30 **Jaiak 2005** | 21:00 **Jaun ta jabe** | 21:30 **Chiloé** |

**GOIENA TELEBISTA** / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

## KAMERAAURREAN



***"Hiltegiak etorkizuna izango du abereak bertan hiltzen badira. Guk, baina, zerbitzua bakarrik eskaintzen dugu, ez dugu abererik. Sektoreak ditu abere horiek".***

**Inazio Lakuntza** / Mankomunitateko presidentea
'Berriak' (2005/07/11)



***"Bi urteren bueltan Lagun Aroko bazkideak Osakidetzaren ardurapean egongo dira, eta egun eskualdeko ospitaleak dituen gabeziak nabarmenagoak izango dira".***

**Joseba Ugalde** / Fagorko Kontseilu Sozialeko kidea
'Berriak' (2005/07/13)

## TELEBEGI/ Leire Kortabarria

# 'Operacion Triunfo'

Noizbehinka egiten diot kasu *Operacion Triunfo* saioari. Zenbat eta gehiago ikusi, orduan eta garbiago geratzen da ustezko helburua –gazte batzuk abeslari izateko prestatzea– aitzakia besterik ez dela, telebistak ondoen egin dezakeena egiteko: edozer gauzatik espektakulua sortu, suspentsea, gatazka, giza-emozio oinarrizkoen kitzikapena, lehia… erabilita. Hori oso argi geratu zen hautaketa probetan: zertarako hainbeste jende mugaraino estutu, zertarako hainbeste kanporaketa proba? Han gehien erakusten zena ez zen kandidatuen talentua, baizik eta antolatzaileek –batzuetan, krudelkeria osoz– sortzen zituzten egoerak, pertsona hori barregarri uzteko, negarra eragiteko…

Orain, lehiaketa bera ikusten ari gara, eta hor ere, gutxien axola dena da gazte horien prestakuntza, zelan abesten duten… Eta, egia esan, eginarazten dizkieten probek balio dute ezertarako? Balio duenak balio du, eta kitto; horrek ez du akademia beharrik. Baina, jakina, orduan, *Operacion Triunfo*-rik ez litzateke egongo…




# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta ORBEGOZO etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**

BERMEA 2 URTE
1.460 X 550 X 590 mm
B
**HOZKAILUA 1FA255**
**255 €** 42.428 pta aspes

BERMEA 2 URTE
1.850 X 598 X 590 mm
B
**HOZKAILUA COMBI 3FAC495**
**375 €** 62.394 pta aspes

BERMEA 2 URTE
5 programa + ECO + Delikatua
A
**ONTZI-GARBIGAILUA LEE11**
**270 €** 44.924 pta edesa

BERMEA 2 URTE
650/1.000 b/min
6 kgr.
A+A
**GARBIGAILUA LA4163**
**345 €** 57.403 pta aspes

BERMEA 2 URTE
1.000 b/min
A+A
**GARBIGAILUA 4L104**
**294 €** 48.917 pta edesa

BERMEA 2 URTE
**TELEBISTA SHARP LCD, 26" LC-26GA5E**
**999 €** 166.220 pta

BERMEA 2 URTE
**TELEBISTA PHILIPS LCD 26" 26PF-4310**
**990 €** 164.722 pta

BERMEA 2 URTE
LABEA H2-1401BN
BITROZERAMIKA VAP1400
B
**LABEA eta BITROZERAMIKA**
**298 €** 49.583 pta aspes

BERMEA 5 URTE
**AIRE EGOKITUA HOTZA ETA BEROA**
**290 €** 48.252 pta tik aurrera FAGOR

BERMEA 2 URTE
2.050 frigoria/h
20-25 m2 lokaletan erabiltzeko
**AIRE GIROTUA ADR 66**
**275 €** 45.756 pta

ETIKETA ENERGETIKOA
Eraginkortasun gehien
A B C D E F G
Eraginkortasun gutxien

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK




RENAULT
**AUTOBERRI**
INSTALAZIO BERRIAK
San Andres Auzoa, 8 - Tel. 943 712 472
ARRASATE

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2005eko uztailaren 15a

## *Atzeskua*

OIHANA ELORTZA

# Mikel Lizarralde/ Txirrindulari ohia

**Dena gertu Tourrerako?**
Azkeneko gauzak batzen harrapatu nauzu, baina bai, dena lotuta; ustez, behintzat.

**Noiz abiatuko zarete?**
Gaur, egubakoitza, bertan. 15:30ean abiatuko gara Oñatitik, ahaten parkearen ondotik. Zapatuko etapa ikusteko asmoa dugu, eta ordu dezente daudenez, garaiz ateratzea komeni da. Domekan gatoz bueltan, etapa ikusi ostean.

**Zenbat lagun zoazte?**
180 inguru. Hiru autobus bete ditugu aurten ere, eta horrez gain, furgoneta bat eta kamio txiki bat ere behar izaten ditugu traste guztiak eramateko: karpak, kanpin dendak, mahaiak, generadoreak, zartaginak, janaria ...

**Eta zenbat kilo janari, eta zenbat litro edari?**
Auskalo! Ogiak, adibidez, 350 erosi ditugu, baserrikoak; arroza, 24 kilo; solomoa, 70 kilo; ardoa, 40 kaxa; arrautzak, 35 dozena...

**Menuak pentsatuta izango dituzue, ezta?**
Bai. Gaur afaltzeko, hirugiharra, solomoa eta tripakiak; zapatuan bazkaltzeko, entsalada mistoa eta onddo nahaskia; zapatuan afaltzeko, txistorra, txorizoa eta solomoa piperrekin. Gosaltzeko, esnea, kafea eta gailetak; postreetarako, gazta eta irasagarra (menbrilloa).

**Taldeak egiten dituzue dena antolatzeko?**
Entsaladaz, adibidez, 10-12 laguneko koadrila bat arduratzen da urtero. Beste pare bat daude berehala hasten direnak sukaldea pizten eta janaria berotzen; tabernari lana ezagutzen dutenak edariak banatzen hasten dira eta beste batzuk argia, karpak eta mahaiak muntatzen.

**Aurrez hartzen dituzue kanpatzeko tokiak?**
Pirinioetako inguruak ezagutzen ditugu gutxi gorabehera, eta badakigu non dauden horrenbeste lagun sartzeko besteko lautadak. Moldatzen gara.

**Euria egiten badu, zer?**
Busti egin behar. Hala ere, beti eramaten ditugu euriaz babesteko gorroak edo txaketak, adibidez, badaezpada ere.

**Zer ikusi duzu Tourreko orain arteko etapetan?**
Lance Armstrong oso indartsu dagoela. Dagoen bezala jarraitzen badu, hark irabaziko du aurtengo Tourra ere.

**Datorren urtean aldatu egingo da Tourra?**
Datorren urtean Tourra zeinek irabaziko duen jakitea zailagoa izango dela uste dut, bai.

**Egin duzu porrarik?**
Bai, denda ondoan dagoen tabernan egin dut eta bertako zerbitzariak esan dit ez noala oso ondo. Kloden eta Valverde sartu ditut, baina baita Mayo ere, eta hark ez dit oraindik punturik eman.

**Pirinioetan ondo ibiliko da, akaso.**
Nahiko nuke, baina ez dakit, auskalo...

**Etengabeko sartu-irtena duzu dendan.**
Urte guztian dator jendea, baina udan gehiago. Umeak oporretan daude...




**“Kloden, Valverde eta Mayo ditut porran; Mayok ez dit punturik eman oraindik”**

**“Generadoreak, karpak, mahaiak, 350 ogi, 35 dozena arrautza, 70 kilo solomo eta 40 kaxa ardo, adibidez, trasteen artean”**

**“Urte guztian etortzen da jendea dendara, baina uda hasieran askoz gehiago”**

► *Oñati / 44 urte / 180 bat lagun doaz Tourrera*

## PIPERRAUTSA

### *Sahara*

Domeka honetan jaia izango da Arrasateko Musakolan, Sahararen alde. Nubi elkarteak hartu du antolaketaren ardura, bere jardunean sendotuz doan seinale. Arrasaten sortu bada ere, ibar osora hedatzeko asmoa du elkarte honek, sahararren alde dagoen borondate ona bideratzeko.

*Sahara orain* jarri diote lelo egun osoko jaiari. Eta nekez asma zitekeen une honetan lelo egokiagorik. Izan ere, datu ugarik adierazten du zerbait aldatzen ari dela 30 urteko gatazka luzean, eta aukera berriak pizten ari zaizkiola konponbideari.

Gatazka txikiek, belaunaldien antzera, haizea behar dute alde, aurrera egingo badute. Eta sahararren egitasmoak (RASD) ez du zorte handirik izan, haize kontuan. Maroko bere etsaia hobeto egon da kokatuta handien artean eta lortu du, trikimailu bidez, Nazio Batuen ekimen konpontzaileak geldiaraztea.

Orain, ordea, Ameriketako Estatu Batuen lehentasuna da Magreb batu eta lagundu, *terrorismoari* aurre egiteko, eta Aljeriarekin harremanak sendotzen hasi da. Baina, Maroko eta Aljeriaren artean badago auzi gorri bat: Sahara. Eta badirudi hasi direla auzi hori konpontzeko mugimenduak eta presioak. Adibidez, zergatik ezagutu dugu orain lurralde okupatuetako errepresioa, 30 urtez irauten badu?

Karabanak behar dituzte Tindufen, baita gure mobilizazioa ere Aaiunen borrokan ari direnek. Ni joango naiz domekan Musakolara. Bazatoz?

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA



**Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak**



**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak**

**Baldintzak**

**Har ezazu parte!**

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Debagoieneko edozeinek parte har dezake.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Nahi beste argazki bidali ahal izango dira.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapen txiki bat.
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 3ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

**Sariak**

- **1. saria: Olympus E-300 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean zozketatuko den sari sorpresa.

Babeslea: gizarte ekintza

Laguntzaileak: GURE AMETSA JATETXEA • EROSKI/bidaiak merezi duzu • Mobiliario ARENAZA ALTZARIAK • DISEINUA • kiñu argazkilariak

Goienkaria ASTELEHENEKO — astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko: 902 36 38 51